



2024 URTEKARIA

HITZA

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU
ETA BUSTURIALDEA

lea-artibaietamutriku.hitza.eus





Uribarren Abaroa

fundazioa ▶

Egoitza
Eguneko Zentroa

www.uribarren.es



94-684 00 55 • 630 98 87 90

lñigo de Artieta etorbidea, 2 - 48280 LEKEITIO

Bat eginda



AINTZINA MONASTERIO MAGUREGI

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU
ETA BUSTURIALDEKO
HITZAREN ZUZENDARIA

Urtekaria atzera begiratzea da, atzera begirako ariketa. Urteko erreposoa egitea ez da erraza inorentzat, esan, idatzi, bizi eta sentitutakoak asko eta askotarikoa baitira.

Euskararen Eguna, Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna, Umeen eta Nerabeen Kontrako Sexu Abusuen Prebentziorako Eguna... joan dira. Nazioarteko egunez beteta ei dago egutegia, asko oharkabean doaz; beste batzuk, gorritz baino, beltzez markatuta ditugu.

Ospakizun, aitortza, kexa, kezka zein salaketak bildu ditugu eguneror. Horren isla ere bada urtekaria. Euskararen arnaguneak dira gure udalderriak, baina arnasfaltaren marruak entzuten hasi gara. Euskara «larrialdi linguistikoan» dagoela dio Euro-

pako hizkuntza gutxituen sareak, eta indarrean diren joera soziolinguistikoak eta egiturazko arazoak itzulikatzeke neurri egokiak epe laburrean hartu ezean, atzeraldia datorrela ohartarazi dute. Hizkuntza larrialdiei aurre egiteko, arnagunak zaindu eta indartzeak duen garrantzia nabarmendu dute. Gurean ere, kezka nabaria da. Euskara sustatzeko planak lantzen ari dira hainbat udal, Uemagaz elkarlanean, eta herritarren parte-hartzea «ezinbestekotzat» dute. Bertoko herritarrak ere arduratuta daude, eta zenbait euskara talde sortu dituzte 2024an. Euskararen erabilera «nabarmen jaitsi» dela antzeman dute.

Osakidetzaren egoeratik ere kezka azaleratu dute han-hemen. Lehen arretako osasun zentro zein

ospitaleetako langileak entzun ditugu. Euren zein herritarren eskari eta salaketak jaso ditugu. Egiturazko neurriak hartzea lehentasuna dela helarazi diote Osasun sailari.

Aldarrikapenen leihoz zabala da gurea, ahots askoren bozgorailu. Gizartea, kultura, ingurumena, kirola, euskara... gai asko landu ditugu 2024an ere, herriak, eskualdeak bizi-rik ditugun seinale. Baina biziago nahi ditugu. Osasuntsu nahi ditugu.

Espazio hau txiki geratu zait esan behar edo gura nituzkeen denak esateko. Baina zuek esateko asko duzue, eta eskualdeko eragile, sortzaile, kirolariek... diotena eta egiten dutena ezagutzeko, gure egunkaria eguneror irakurtzeko gonbita luzatzen dizuegu. Eskerrik asko, eta segi bertokoa, gertukoa zaintzen.

Argitaratzailea: **Lea-Artibaialdeko Hedabideak, S.L.**
Lege Gordailua: **BI-02083-2021**

Egoitza nagusia:
Arretxinaga Etorbidea, 1 • 48270 Markina-Xemein | Tel.: 94-684 44 36
Mutriku. Barrenkale, 19- behea | Tel.: 943 603 468

E-posta: lea-artibai@hitza.eus
Webgunea: www.lea-artibaietamutriku.hitza.eus

Zuzendaria: Aintzina Monasterio Maguregi
Kudeatzailea: Ama Lur Bedialauneta Ibaibarriaga

Publizitatea: Maribi Fernandez 600 57 14 26 | mfernandez@hitza.eus

Testuak: HITZA / Ane Maruri Aransolo

Diseinua eta maketazioa: 11barri.eus / Eli Azpiazu Armaolea

Argazkiak:

Abarka antzerki taldea | AEK | Ager Solabarrieta | Amaiur Elkartea | Amorotoko Udala | Andrak Erramutan | Ander Txakartegi | Artzabal Surf Elkartea | Atabaka | Aulestiko Udala | Azkoitiko Udala | Berriatuko Udala | Berriatuko Erraldoien Konpartsa | Berriatuko zesta eskola | Beti Jai Jubilatuen Elkartea | Bixi ekimena | Dei taldea | Elhuyar Fundazioa | Elkar argitaletxea | Eneko Sagarmendi | Endika Lekube | Etxe Betea | Etxebarriko Gazte Asanblada | Etxebarriko Udala | Euskal Zine Bilerak | Euskal Australiar Alkartea | Espainiako Pilota Federazioa | Gernika Palestina Herri Ekimena | Gizaburuagako Udala | Goizeko Izarra ikastola | Gorka Bravo | Gure Ametsa dantza taldea | Helmugak erronka | Haszten Elkartea | Ibon Goitia | Irekia | Ispasterko Udala | Jazzaldia | Javier Arrieta | Jon Egia | Julen Apella Santamaria | Lea Artibaiko Landa Garapen | Lea Artibai Fundazioa | Lea Artibai Ikastetxea | Lea-Artibai Klasikoa | Lea-Artibai Mankomunitatea | Lea-Artibai Txallengea | Lekeitioko Udala | Markina-Xemeingo Udala | Markina-Xemeingo esku pilota taldea | Mendexako Udala | Mikel Iriondo | Mikel Osa | Munitibarko Udala | Mutriku Buruhandi eta Erraldoien Konpartsa | Mutriku Udala | Musikaia Musika Eskola | Ondarroako Udala | Ondarroa Igeri Taldea | Raquel Samitier | Silver Film Festival | Slavers | Saioa Karkamo | Tupay elkarte | Udalbiltza | Yoana Garcia | Zubi Zahar herri ikastetxea | Ziortza-Bolibarko Udala

ERREDAKZIOA

- Aulesti - Gizaburuaga - Ondarroa - Mendexa - Mutriku:
Garazi Burgoa Aldarondo
607 49 01 63 | ondarroa@hitza.eus; mutriku@hitza.eus
- Amoroto - Etxebarria - Lekeitio - Markina-Xemein - Ziortza-Bolibar:
Garaia Pagola Urriza 607 49 01 60 |
markina-xemein@hitza.eus; lekeitio@hitza.eus
- Berriatua - Ispaster:
Mikel Reina Barros 607 49 01 67 | lea-artibai@hitza.eus
- Munitibar:
Alex Uriarte Atxikallende 647 35 53 32 | ea@hitza.eus



zerbitzua eta
lana euskaraz



lea-artibai eta mutriku 2024 urtekaria

Hitza diruz laguntzen duten udalak:

Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar, Mutriku, Ondarroa eta Ziortza-Bolibar.

Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.L.ko kideak eta Lea-Artibai eta Mutrikuko dozenaka eragile.



Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



Aurkibidea

Euskara 04

Ekonomia 06

Kultura 08

Kirola 10

Politika 12

2024, zenbakietan 13

2024, hilabetez hilabete

Urtarrila.	16
Otsaila.	20
Martxoa.	24
Apirila.	28
Maiatza.	32
Ekaina.	36
Uztaila.	40
Abuztua.	42
Iraila.	46
Urria.	50
Azaroa.	54
Abendua.	58

HITZA

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU
ETA BUSTURIALDEA

JARRAI GAITZAZU SAREAN ERE:

lea-artibaietamutriku.hitza.eus

📧 @HITZAleamutriku



Munitibartarrak ere korrika jarri zituen 23. Korrikak.

Harro egoteko ehunka arrazoi eta milaka pauso, 23. Korrikan

LEA ARTIBAI ETA MUTRIKU/

Martxoaren 20an, arratsaldean sartu zen Korrika eskualdera Mutrikutik, eta iluntzean irten zen Ispastertik.

Eskuz esku eta pausoz pauso harro egoteko ehunka arrazoi daudela erakutsi zuten 23. Korrikan Lea-Artibai eta Mutrikuko herritarrek. Burumendi Mendizale Elkartekoak izan ziren lekukoa hartzen lehenengoak euren herrian,

martxoaren 20an, 14:10ak aldera. Eskualdea zeharkatu ostean, Zoragarriak Harro taldeko kideek agurtu zuten lekukoa Ispasterren, 1.611 kilometroan, 20:30ean. 23. Korrika goxo eta bero hartu zuten herritarrek, harrotasunez eztanda eginez. Lehenago, baina, Korrika Txikiek girotu zuten etorrera.

Harro Herri

Martxoaren 14an Irunen hasi zen euskararen aldeko lasterketa, eta Baionan amaitu hilaren 24an. Harro Herri lelopean, 2.700 kilometroko ibilbidea egin zuten lekukoa, eskuz esku.

Azterketak Euskaraz izan zen omendua, eta Garaiz Arrula Ruiz idazleak idatzi zuen lekukoak garraiatutako mezua. «Inoizko Korrikarik erraldoi eta anbiziotsuena» izan dela ondorioztatu zuen AEK-k.

Argazki galeria:



KORRIKA TXIKIEK ERE KALEAK BETE ZITUZTEN

23. Korrika eskualdera heltzeko ordu gutxi falta zirenean Korrika Txikiek girotu zituzten kaleak.



1950etik **ZARAUTZ**
ALTZARIAK

- Era guztietako altzariak
- Sofak eta osagarriak, tradizionalak zein azken tendentzietakoak
- Diseinu eta aurrekontuak konpromisorik gabe

94 684 06 53
94 625 85 78
LEKEITIO • GERNIKA

COVIRAN

Janeriak

Zaton

Tel.: 94 683 17 83
Ibaiondo, 5 - Ondarroa

ZATOZTE
Zure etxera gertu.

Herrian erein, Herria loratuz!

GABONAK
ONDARROA 2024
GABON ZORIONTSUAK
eta URTE BERRI ON!

Euskadi, argitara, hiru comarca

1980 MUNDUAK 1980 MUNDUAK

ondarroa



Hamabigarren aldiz, liburuaren amuak harrapatuta

ONDARROA/ Aingeru Epaltzaren *Erretzaile damutuen konpainia* liburuarekin abiatu zuten urriaren 26an Liburuaren amuak egitasmoa. Hileko azken zapatuetan «liburuak irakurri eta lagun artean komentatzeko» hitzorduak helburu desberdinak ditu: euska-

raz irakurtzeko gogoia sustatzea da horietako bat, baita irakurketa gustuko dutenen arteko loturaretan sakontzea eta euskaraz irakurtzearen plazera zirikatzea ere. Proba bezala hasi baziren ere, hamabigarren ikasturtea abiatu zuten aurten.

Euskara sustatzeko proposamen linguistikoa

AULESTI/ Lea-Artibai eskualdea euskararen arnagune bezala identifikatuta dagoenez, euskararen aurkako oldarraldiaren aurrean, bertara hurbildu eta pauso bat eman nahi izan zuten Nazioegintza Taldeko kideek. Hala, euskararen erabilera sustatzeko proposamen linguistikoari buruzko hitzaldia eskaini zuten Aulestin.



Arrietaren euskarazko lanak, eskuragarri

ONDARROA/ Javier Arrieta ondarrutarrak bere euskarazko idatzi guztiak webgune batean batu eta antolatu zituen, horiek herritarren eskura jarritz. Arrietak ibilbide oso bat darma idazten eta askotariko gaiak landu ohi ditu: zuzenbide ogibideagaz lotura duten arlo profesionalaz gain, gizarteaz, kulturaz eta erlijioaz ari da eskuragarri jarritako idatzietan.

Euskara Taldea sortu zen, herriko euskara berreskuratzeko

MENDEXA/ Mendexako euskara defendatu, balioetsi eta estimatu nahi duen talde bat sortu zen herrian: Mendexako Euskara Taldea. «Mendexaron identitatearen oinarrietako bat euskara da, baina, azken urteotan, gure hizkuntza geroz eta pobregoa, urriagoa eta erderatik hurbilago dagoela konturatu gara», esan zuten. Eta erabakiak hartu zituzten.

Izan ere, egoera horrekiko ardurak eraginda, martxoan sortu zuten taldea, eta ekin tzak antolatzen hasi ziren. Hain zuzen ere, Mendexan erabiltzen diren berbak, esaerak eta bestelakoak batzeari ekin zioten maiatzean, eta horrela aritu ziren uztaillaren amaierara bitartean. Informazioaren bilketaren ostean, jasotakoa herrira zabaltzeko asmoa iragarri zuten.

Herriko euskararen aldeko talde horretan parte hartzeko deia ere egin zuten. Izan ere, bost kiderekin abiatu zuten proiektua, eta talde irekia izanik, hurbildu nahi dutenak esku zabalik hartuko zituztela esan zuten: «Taldea honen helburuak dira herriko hizkuntza paisaia zaintzea, herriko hitz eta esaerak berreskuratzea, eta azken finean, euskararen erabilera sustatzea. Ez ezazue ahaztu taldeko parte izan nahi baduzue atea zabalik izango dituzuela».

ZIORTZA - BOLIBAR
askatzailearen sustraietatik

www.ziortza-bolibar.eus
udala@ziortza-bolibar.com

Udala:
94-616 57 27
Simón Bolívar
museoa:
94-616 41 14

EUSKAL PRESOK
EUSKAL HERRIRA



Merkatu plazetan mugimendua sortzeko ekimen bateratua abiatu zuten

LEA-ARTIBAI/ Lekeitioko, Markina-Xemeingo eta Ondarroako udalek bat egin zuten Lea-Artibai Landa Garapen Elkartearekin, eta merkatu plazetan erosketak egitea bultzatzeko asmoz, hilabetero bertoko produktuekin osatutako otzara bat zozketatzea erabaki zuten. Merkatu plazen eta azoken gain-beherari aurre egiteko asmoz, «egitasmo xume» batekin hasi

zuten aldaketarako bidea irailean. Izan ere, Lea-Artibaik daukan biztanle kopururako merkatu plaza «asko» daude, eta «herritar askok ez dute ohiturarik bertara joateko». Merkatu plazak baloreari ipini eta horietan mugimendua sortzeko asmoz abiatu zuten ekimena. Hala ere, hurrengo urteetara begira hausnarketa sakonago bat egiteko asmoa iragarri zuten.



Eikaren ibilbide «oparoa» ospatu zuten

ETXEBARRIA/ Eikak 50. urteurrena ospatu zuen urtarrilean, familiarrean. Iñigo Arrieta presidentek sorrerako lan taldeak egin-dako lana eta emakumeen ekarpena goraipatu zituen, besteak beste. Iñigo Urkullu lehendakaria eta Arantxa Tapia ere egon ziren, eta Urkulluk Eikak egindako «bide oparoa» zoriondu zuen.



Fiturren, eskualdearen aukerak zabaltzen

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU/ Madrilgo Fitur nazioarteko turismo azokan egon ziren, beste behin, eskualdeko ordezkariak, eta jasotako erantzunagaz «pozik» agertu ziren. Geoparkeko arduradunak, Etxebarriko Antsotegi Hotelekoak, Leaktibai elkarteak eta Garapen alkatetakoak egon ziren azokan.

KITXARRA
ZUMORA
TABERNA
94-602 83 43
San Inazio,43
ONDARROA

ZABALA-MT

Gardotza Industrialdea, 1
48710 BERRIATUA
Apdo. 84
48710 ONDARROA
Tel. 94-683 1112
Faxa: 94-683 3242
zabalamt@zabalamt.com
www.zabalamt.com

U

Urre, s.a.
Aulestia kalea, 22
AULESTI
94-627 90 37
urre@urre.es



Uronza
Urdaki-Baonza

94-684 37 69
656 78 03 41



Ekintzaileen lanari errekonzimendua Amoroton

LEA-ARTIBAI/ Leartibai Fundazioak hirugarren aldiz antolatu ditu ekintzailetza bistaraztea eta eskualdeko ekintzaileei errekonzimendua ematea bilatzen duten Lea Artibai Sariak. Hala, negozio ideia berritzaile onenaren saria Naiara Arantzamendik irabazi zuen. Ostalaritza, turismo eta zerbitzu enpresa onenarena Nahia Iparragirrek, eta

Jaione Peñarentzat izan zen merkataritza establezimendu onenarena. Emakume ekintzaileen saria, ostera, Olaia Urrestirentzat izan zen. Gazteengan arreta berezia ipinuz 2.000 euroko bost sari banatu zieten Alex Arrateri, Asim Intizarri, Julen Etxaberi, Jurgatx Gili eta Mikele Sotili. Guztira 37 proiektu aurkeztu zituzten, 2023an baino sei gehiago.

Burdinolak Suitzan zabaldu zuen egoitza

AMOROTO/

Burdinola enpresak egoitza berri bat zabaldu zuen Suitzan. Enpresako arduradunek esan zuten, «are gehiago» indartuko dute euren nazioarteko presentzia, baita enpresak merkatuan duen posizioa sendotu ere, «mundu osoko bere bezeroentzako bazkide berritzaile eta konfiantzazko gisa.



ROALeko langileak kalera atera ziren

BERRIATUA/ Gardotza Industrialdeko ROAL enpresako langileek euren eskubideak urratuak izaten ari zirela salatu zuten, elkarretaratze, lanuzte zein grebekin: «Gure soldatak ordaindu ditzaten exijitu eta gure lanpostuak defendatzeko atera gara kalera». Enpresari dagokion erantzukizuna hartzeko eta irtenbidea bilatzeko eskatu zioten behin eta berriz.



Lea Artibai Fundazioaren lana nabarmendu zuten

LEA-ARTIBAI/ Lea Artibai Fundazioak eskualdean erreferentziatzeko eragile bakar gisa duen erreferentzialtasuna azpimarratu zuten Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariak, «beste gobernantza eredu batzuen aldean, eskualdeko garapen ekonomiko eraginkorragoa eta kohesionatuagoa bultzatzen duelako».

Bizkaiko zein eskualdeko udaletako ordezkariak nabarmendu zuten Leartibai Fundazioak «gaitasun handia» duela BOS estrategian proiektu berritzaileak eta erreferentziak garatzeko.

Gainera, eskualdeko enpresei aldundiaren funts publikoak lortzen laguntzeko duen gaitasuna ere goraiatu zuten. Izan ere, 2023ra arte, fundazioari esker, Ekonomia Sustatzeko Sailak eskualdeko 64 proiektu babestu zituen, eta 32 enpresak parte hartu zuten.

Bizkaia Orekan Sakonduz strategiaren baitan, gainera, fundazioa eskualdeko industria eta industriari lotutako zerbitzu enprekin garatzen ari den proiektu eta ekintzei buruz aritu ziren.

eskola eta bulegoetarako materiala

URBIETA

PAPERTEGIA

Artolaba, 4 behea
94-624 38 32
judith.markes@gmail.com
LEKEITIO

URBASA

GARBIKETAK

Telf. 94 616 83 32

/ INSTALAZIO ELEKTRIKOA
/ TELEKOMUNIKAZIOA
/ MANTENIMENDU INDUSTRIALA
/ ENERGIA BERRITZAGARRIEN
GESTIO ETA INSTALAKUNTZA

UK URKAN

TALDEA

Antzomendi industriagunea, 9.pab. • Galdona bidea • 20830 MUTRIKU
Tel. 943 603934 / Faxes. 943 607147 / urkan@urkan.net

► www.urkan.net ◀

Lekunberrik irabazi zuen Bizkaldatz lehiaketako saria

MARKINA-XEMEIN/ Bizkaiko Foru Aldundiak banatzen dituen 16. BizkaIdatz literatur lehiaketako euskarazko lanen kategorian Amaia Lekunberri Ansola markina-xemeindarrak lehen saria irabazi zuen *Egizu Match* lanagaz.

Parte hartzaileek kontakizun bat idatzi behar zuten, gaur egungo beste idazle batzuek proposatutako bi istorioren (bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz) hastapenetatik abiatuta, betiere proposatutako kontakizunen hasierara, pertsonaietara eta planteatutako egoeretara egokituta. Hala, markina-xemeingo kazetariak 2.000 euroko saria eta diploma egiaztagarri bat eskuratu zituen.



Lami eta Maru erraldoiak sortu zituzten herritarrek

BERRIATUA/ Proiektu herrikoa izatearen aterpean, Lami eta Maruren kondairetako protagonistek erraldoi itxura hartu zuten Berriatuan, izan ere, erraldoi bi sortu zituzten: Lami eta Maru. Kondairek diote lamiak egoten zirela herriko erreketan, eta, maruak, berriez, inguruko mendi eta basoetan. Beraz,

erraldoiei izen horiek jartzea erabaki zuten elkarlanean. Izan ere, konpartsa eran sortu zituzten erraldoiak. Hala, jostun taldeak, GoikoLau Kultur Elkarteak, guraso elkarteak, udalak, Maribel Aiertzak, Sarats Dantza Taldeak eta Tarine Musika Eskolak parte hartu zuten sorkuntzan, era batera edo bestera.



'Koaxi' hautatu zuten Etxe Beta proiekturako

ONDARROA/ Etxe Beta proiektuak antolatutako *Gela bat norberarena* izeneko egoitza artistikoan egonaldia egiteko hautatu zuten Naia Arantzamendi zinemagile ondarrutarra, euskarazko *Koaxi* proiektuarekin. Herri arrantzaleekin lotura duen istorio bat kontatzen du obrak, 1979ko Ondarroan kokatuta dagoena.



Herritarrek Literatur Amuakeko protagonista

ONDARROA/ Ondarroako Literatur Amuak jaialdiaren protagonistak izan ziren herritarrek. Izan ere, ekimenak «herriko artisten gotorleku» izatea bilatu zuten, eta askotariko ekin-tzak antolatu zituzten horretarako, disziplina desberdinetako sormena eta euskara ardatz hartuta.

Urteetako bermearekin
ESKUALDEKO KONTZESIONARI BAKARRA



URALAR

Gardotza Poligonoa Berriatua
 uralar@forduralar.com
 Tel. 94 683 34 24 Faxa 94 683 32 87



UHA GON

665 21 26 89 (taberna)
 94-616 63 03 (bulegoa)
 Xemein etorbidea, 10
 MARKINA-XEMEIN

Kultur Gunea



Australiara joandako horien testigantzak erakusketan jasota

LEA-ARTIBAI/ Euskal Australiarren Elkarteak landutako *Basques in Australia* erakusketak Lea-Artibaiko herri asko eta asko zeharkatu zituen; izan ere, Australiara lanera joandako euskaldunen testigantzak jasotzen zituen bildumak, tartean eskualdeko hainbat herritarrenak.

Irene Galarraga mutrikuarraren lana saritu zuten

MUTRIKU/ *Izena duena bada izenburupean. Euskal nortasuna, historia eta sinbologia Iratin* lanarekin Sancho El Vital Fundazioak antolatutako ikerketa lehiaketako saria irabazi zuen Irene Galarragak. Mutrikuarrak Paul Urkijoren *Irati* filma hartu zuen abiapuntutzat, euskal zinean euskal nortasuna zein ikurren bidez irudikatzen den aztertze-ko. Eta, doktoretza bat egiteko nahia erakutsi zuen, bide horretatik jarraitu eta beste 18 pelikula aztertuz.



'Autokarabanie'-k barre algaraz bete zuen Arretxinaga

MARKINA-XEMEIN/ *Autokarabaniek* barre algarara artean zeharkatu zuen Arretxinaga. Abarka Antzerki Taldekoak bost urteren ostean igo ziren oholtzara berriro, eta euren lanagaz «bete-beteta» geratu ziren: «Jendeak esan digu halako gehiago behar direla, eta sentimendua oso positiboa izan da». Hala,

etenaldiaren ondoren berriro konektatu zuten hainbatek Abarkaren arimarekin eta esentziarekin, eta energia eta ilusio horrekin aurkitzeak Abarkaren arima piztu zuen. Hala, Arretxinagako zubi ingurua jendez bete zuten, herritarrak ez ezik, eskualdekoak eta urrunagokoak ere bertaratu baitziren.

Santamariak 'Ez dadin bizitza eten' liburua idatzi zuen

BERRIATUA/ Ainara Santamaria berriatuarrak zaintzen inguruko *Ez dadin bizitza eten* liburua kaleratu zuen, Miren Aranguren eta Monika Mendiberrigaz batera idatzitakoa. Bizitza ulertzeko modu bat lantzen du liburua, Santamariaren berbetan: «Bizitza lehenesten duen testua da honakoa. Bizitzako ongizatea eta bizitza bera erdigunean jartzen duen liburua da».



IGELTSEROTZA
ELEKTRIZITATEA
ETXE-ISOLAMENDUAK

UGARTEBURU, C.B.

Zumatzeta kalea 2 - 1. D - 48280 LEKEITIO Tel. 605 71 72 74



FISIOTERAPIA ZENTROA TXOMIN TXURRUKA

AUTO ISTRIPUAK • ERREUMATOLOGIA • TENDINITISAK
KIROL LESIOAK • MASAIA • BIZKARREKO ETA BURUKO MINAK

Oparitu osasuna! OPARI TXARTELAK

Artibai 12, behe Markina-Xemein Tel.: 94 616 60 32

Arai Lejardik eta Aritz Erkiaga, garaile banakako lehia

ZESTA-PUNTA/ Arai Lejardi markina-xemeindarrak jantzi zuen Emakumezkoen Berria-tuko Banakako Txapelketako lehen txapela, eta Aritz Erkiaga ispasterarrak hirugarren aldiz jarraian irabazi zuen banakako txapelketa, laugarrena guztira. Markina-Xemeindarrak bi setetan gainditu zuen Maite Ortiz de Mendibil: lehendabiziko seta izan zen berdindua, bakoitza bere jokoa inposatzen saiatu zelako, baina bigarrenean errazago nagusitu zen Lejardi. Erkiagak ere bi setetan irabazi zion Erik Mendizabal mutrikuarrari, fisikoki gogorra izan zen partiduan. Baina Erkiagak bere maisutasuna erakutsi zuen.



San Miguel Rallysprinta berreskuratu zuten


AUTOMOBILISMOA / Eme automobilismo kirol klubak 2016tik egin gabe zegoen San Miguel Rallysprinta berreskuratu zuen, eta berrikuntza askorekin ailegatu zen ekainean. Antolatzaileen taldea bera izan zen, hain zuzen ere, berrikuntza handienetakoa. Izan ere, Eme eskuderiako kideek 2022an elkartutako

emakume talde bati tiraka berreskuratu zuten Rallysprinta. San Miguel gaina igo eta jaitsi ostean, baina, Aitzol Apalantza eta Olatz San Miguel Ikullu Razing taldekoek lortu zuten lehen postua. Automobilismoan emakumei ikusgarritasuna ematea helburu zuen lasterketaren balorazio «oso ona» egin zuten.



Tenk eginez, emakumeen taldea eratu zuten

SOKATIRA/ Hogeit urteren ostean, Mutriku Sokatira Taldeak «gogoia, konpromisoa eta kohesioa» ezaugarri bereizgarritzat dituen emakumezkoen taldea eratu zuen. Tiratzen hasi ziren hemezortzi tiralarietatik ia denak lehen aldiz hartu zuten soka esku artean. «Taldekako konpromiso izugarria» nabarmendu zuten.



Solabarrieta eta Badiola, maila bikainean

TIROGOKITUA/ Ager Solabarrietak eta Maite Badiolak urrezko domina bana lortu zuten, zutik eta etzanda, Espainiako Txapelketan. Horrez gain, Europako Txapelketan bigarren sailkatu ziren hamar metroko zutikako modalitatean, eta taldekako lehia irabazi zuten, mundu marka berria ezarriz.

TXIKI TXOKO
DASTATEGIA

688 29 67 49
P. ABAROA 18 LEKEITIO

porru
anaiak
margolariak

615 764 435
657 771 028
615 767 564
artakuk@euskalnet.net

TXAKARTEGI
MARGOAK

LEKEITIO
94-656 08 26
Buenaventura Zapirain 3, behea

Erretiroa hartu zuen Alain Colungak, «modu naturalean»

ARRAUNA/ Hainbat urteko ibilbide luzearen ostean, erretiroa hartu zuen Alain Colungak. Azken hamabost urteak Urdai-bain egin zituen, eta, herriarekiko eta klubarekiko sentimenduak tarteko, zail egiten zitzaion erabakia hartzea. Azkenean, agur esateko ordua esan zuen arren, pena ere bazuela onartu zuen arraunlari ondarrutarrak, «lantalde bat baino gehiago utzi zuelako atzean». 11 urterekin arraun-ean hasi eta gero, agur esan duen aurtengo denboraldian bere zazpigarren Eusko Label Liga eta zortzigarren Kontxa irabazi zituen.



Murphy eta bere taldekideak bigarren, Boccia Kopan

BOCCIA/ Euskal Herriko txapelketa guztiak irabazita, Sevillan lehiatu zuten Espainiako Boccia Txapelketa Haszten Elkarteko kideek, tartean Ronan Murphy lekeitiarrak. Eta, handik, zilarrezko dominagaz itzuli ziren etxera. Entrenatzaileak «pozik» zeuden. Izan ere,

desgaitasun fisikoa, garun paralisia edota garun lesioa dutenek jokatzen dute Boccia kirol paralinpikoa, eta kirol hori ezagutarazi nahi dute Haszten Elkartekoe: «Kirolari ikusgarritasuna eman nahi diogu, inork ez duela ezagutzen. Oso garrantzitsua da guretzat».



Espainiako Txapelketa, Sagarmendirentzat

PILOTA/ Eneko Sagarmendi pilotari mutrikuarrak pilota egokituko Espainiako Txapela eskuratu zuen Iruñeako Labrit pilotalekuan jokatutako final handian. Bi partidatan bi garaipen eskuratu zituen mutrikuarrak, Hodei Asteasu erreteriarrekin batera. «Pozik nago egindako lanarekin».

Kevinth Cardona, Kukaña gainean irristatzen onena

KUKAÑA/ Kevinth Cardona ondarrutarrak irabazi zuen Euskal Herriko I. Kukaña Txapelketa. Aurrera Egunagaz batera egin zuten txapelketa, eta Cardonak laugarren itzulian lortu zuen ikurrina. Lehiaketa antolatzeaz gain, Aurrera Kukaña Taldea ere sortu zuten. Horrez gain, ondarrutarrak hiru-garren postua lortu zuen Azerbaijango kukaña txapelketan.



Torrealday

AHOLKULARITZA LIDERRA, TOKIKO ARIMAREKIN

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA

www.torrealday.es

BERMEO	-	94 688 46 08
GERNIKA	-	94 627 00 36
LEKEITIO	-	94 684 26 75
ONDARROA	-	94 683 29 75

Eskerrik asko!

Hainbeste urtetan gugan jarritako konfidantzagatik

Talako Aroztegia S.l.



EH Bildu bozkatuena, Legebiltzarreko eta Europako hauteskundeetan

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU/ Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan EH Bildu izan zen alderirik bozkatuena Lea-Artibai eta Mutrikuko udalerrri guztietan. 2.427 botoko alde egon zen EH Bilduren eta EAJren artean; hain zuzen ere, 2020ko emaitzekin alderatuta, 996 boto gehiago bildu zituen koalizio subiranistak, eta alderdi jeltzaleak, ostera, 479 boto gutxiago

jaso zituen. Europako hauteskundeetan, berriz, botoetan beharakada izan bazuen ere, EH Bildu izan zen lehen indarra Lea-Artibain eta Mutrikun. Lea-Artibaiko 11 udalerritan eta Mutrikun bozkatuena izan zen koalizio subiranista, eta alderdi jeltzaleak Etxebarrian nagusitasuna mantentzen jarraitu zuten. Biek jaso zituzten duela bost urte baino boto gutxiago.



Ansola, Bizkaiko Buru Batzarreko presidente

MARKINA-XEMEIN/ Iñigo Ansola markina-xemeindarra izendatu zuten Bizkaiko Buru Batzarreko presidente. EAJren Bizkaiko Herrialde Batzarretan nagusitasunez gailendu zen Ansola, izan ere, 189 ahaldunetatik 162ren babesa jaso zuen. Ansola ibilbide berriari heltzeko «ilusioz beteta eta indartsu» agertu zen.



Lekeitioko Udala Udalbiltzara batu zen

LEKEITIO/ Udalbiltzak ez-ohiko batzar nagusia egin zuen ekainaren 7an, Iturmendin, eta bertan izan ziren Lekeitioko udal ordezkariak, izan ere, Lekeitio Udalbiltzara batzea onartu zuten. Herri jasangarria, zaintzailea, hezitzailea eta memoria duen herri euskalduna izaten jarraitzeko asmoa agertu zuten.



SUGASLAN

635 74 94 79 | 94 684 30 22



Iturgintza,
gas proiektuak,
energia
berritzagarriak
eta eskabazio
lanak.

Abaroa etorbidea, 39
48280 LEKEITIO

sugaslan@gmail.com



Seijo
PINTURA LANAK

629 315 011
626 774 342

LEKEITIO
Eusebio M. Azkue
(Trinkete aurrean)
sejopinturlanak@gmail.com



Korri Txiki Ziortza-Bolibarren.

BIZTANLEAK

31.146

BIZTANLE ZEUDEN ERROLDATUTA LEA-ARTIBAIETA MUTRIKUN

2024ko azaroaren 30era arte. Gehiago ziren hil zirenak jaio zirenak baino.

LANGABETUAK

1.028

LEA-ARTIBAIETA MUTRIKU: 2024ko urrira arte, Lea-Artibai eta Mutriku langabetu kopurua. 2023an baino 41 gutxiago.

HERRI HANDIENETAN:

Ondarroan, 301 langabe; Lekeitio, 229; Markina-Xemeinen, 159 eta Mutriku, 193. Ehunekotan, Berriatuan daude langabetu gehien, %7,82; eta Mendexan gutxien, %2,72.

LANGABEZIAREN

BILAKAERA. 2015ean, 1.523 langabetu zeuden; 2016an, 1.312; 2017an, 1.190; 2018an, 1.243, 2019an, 1.141, 2020an, 1.509; 2021ean, 1.217; 2022an, 1.148; eta, 2023an, aldiz, 1.069 zeuden.

HERRIZ HERRI. AZAROAREN 30ERA ARTEKOAK

HERRIAK	Jaiotzak	Heriotzak	Errolda
Amoroto	3	6	394
Aulesti	1	4	643
Berriatua	2	10	1.232
Etxebarria	5	10	796
Gizaburuaga	0	1	202
Ispaster	5	8	733
Lekeitio	41	69	7.236
Markina-Xemein	29	47	5.130
Mendexa	0	6	427
Munitibar	2	5	481
Mutriku	17	46	5.265
Ondarroa	32	90	8.198
Ziortza-Bolibar	1	3	409
GUZTIRA	138	305	31.146



LEIZE MUTRIKU

txetx

SAGARDOTEGIA

Madalena, 4 (Ihenako KAI)

632 88 02 52

LEIZE ERRETEGIA

Pikua ERRETEGIA · LANDETxea apartamentuak

Laranga auzoan
MUTRIKU
943-60 32 42
www.pikua.es

APARKALEKUA
BEZEROENTZAT

Leartibai

Fundazioa

Garapen bidea gara.



Ekintzailetza • Industria
Merkataritza • Talentua
Turismoa eta ostalaritza

📍 www.leartibaifundazioa.eus

☎ 94 616 91 72

✉ kaixo@leartibaifundazioa.eus



Eskerrik asko!

HITZaren BIDELAGUNA izaten jarraitzezatik!

Zure ekarpena ezinbestekoa izan da
2024an hurrengo lortzeko:

3.500 albistetik GORA sortzea.

500 ikus-entzunezko baino gehiago EKOIZTEA.

UDAN egunkari digitala martxan egotea.

175 egunetan egunkaria etxez etxe banatzea.

13 gehigarri argitaratzea.

Iaz baino %10 irakurle GEHIAGO edukitzea.

Sareetan, iaz baino %5 jarratzaile GEHIAGO edukitzea.

33 udaletako eta ehunka eragileren berrien

BOZGORAILU izatea.

20 eragile inguruekin **LANKIDETZA-JARDUERAK** egitea.

200 OPARITIK GORA banatzea.

HITZA

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU
ETA BUSTURIALDEA

IDEIAK
SORMENEZ
ONTZEN
DITUGU

11barri
DISEINUA
KOMUNIKAZIOA
EUSKARAZ

DISEINU GRAFIKOA |
KOMUNIKAZIOA |
TESTUGINTZA |

11BARRI.EUS

607 49 01 66 | 607 49 01 62 | info@11barri.eus



Madalena opilak egiten ikasi zuten ume zein nagusiek

ETXEBARRIA/ Etxebarriko ETX kultur elkarteak madalena opilak egiten ikasteko tailerra egin zuen. Lorea Lejardi bizilaguna izan zen madalena nola egiten diren azaldu zuena, eta umeek, nagusien laguntzagaz, adi-adi jarraitu zituzten hark esandakoak.



Zesta-puntara zaletzeko jardueraz bete zen frontoia

MUNITIBAR/ Markina-Xemeingo zesta-punta eskolak antolatuta, Lea-Artibaiko umeek zuzendutako zesta-punta jardunaldia egin zuten Munitibarko frontoian, eta jarraian kopaua, plazako karpan. Ekimenaren jomuga nagusiak kirol horrekiko zaletasuna ume-

engan sustatzea eta, era berean, zesta-puntan aritzeko azpiegiturarik ez duten udalerrietan horiek lortzeko lehenengo urratsak egitea izan ziren. 50 ume inguru elkartu ziren, Markina-Xemein eta Munitibarkoak ezeze, inguruko herrietakoak ere bai.



Markina-Xemein Udalbitzara batu zen

MARKINA-XEMEIN/ Markina-Xemein Udalbitzara batu zen urtarilaren 20an, beste sei udalerrigaz batera. Mari Eli Ituarte Euskara eta Kultura zinegotzia eta Herritartasun batzordeko burua izendatu zuten Udalbitzako udal ordezkari. Udalbitzara batzea herriarentzako onuragarria izango zela azpimarratu zuen.



Plastikozko xisterak sortu zituzten

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU/ Zesta-puntan hasten diren umeentzako plastikozko xisterak sortu zituzten, horrek kirolaren «garapena» ekarriko duela esanda. 2019an hasi zuten prozesu horretan parte hartu zuen Leartikerrek: «Komunitate eta kulturagaz dugun konpromisoaren testigantza da».



**OGITEGIA
PLAZA**

ATXABAL, 4
LEKEITIO
94 684 02 07

NABERAN

www.naberan.com

**ITSASORAKO
SAREAK
ETA ITSASGAIK**

Mutrikuko Industrialdea, 15
61 postakutxatila
MUTRIKU
ff.: 943-19 51 22
faksa: 943-19 51 25

**SANEAMIENTOS
Ondarroa**

IGAMIA
88 C/Industria 88

Erailbuntza galah - Burdindegia
Subaldeak - Bainugelak - Zaramilak



Erabusketa - Denda:
exposicion@saneamientosondarroa.com
Artabide 22 Behea | Ondarroa
Telf: 94 683 0849 | 671 116 722

Burdindegia - Bildegia - Bulegoa:
almacen@saneamientosondarroa.com
Errenteria auzoa z/g | Ondarroa
Telf: 94 683 2040 | 94 613 4048

www.saneamientosondarroa.com

Salaketak jartzeko kanala martxan jarri zuen udalak

MARKINA-XEMEIN/ Markina-Xemeingo Udalak salaketen kanala jarri zuen martxan, web orrialdean. Zerbitzuaren bidez edozein pertsonak salaketa bat jarri zezakeen, udalak edo haren erakunderen batek egindako arau hauste, jokaera bidegabe edo jardunbide desegokirik hautemanetz gero.

Herritarrak komunikazioa modu anonimoan egitea erabakiko balu, zerbitzuak konfidentzaltasuna bermatzen zuela jakinarazi zuen udalak. Udalak nabarmendu zuen salaketak kontuan hartuko zituela eta egindako kudeaketan emaitzak jakitera emango zituela.

Mutriku turistaren helmuga bilakatu nahia salatu zuten

MUTRIKU/ Mutriku turistaren parke eta dirudunen bigarren erresidentzia bilakatu nahi dutela salatu zuten Mutriku-Gazte Asanbladakoek. Joeraren abiapuntutzat dikeko obrak jo zituzten, eta datozen urteetan dikearen inguruetan gertatu daitekeenari adi egon behar dela ohartarazi zuten. Hain zuzen ere, egoera horrek gazteei zuzenean eragiten diela azpimarratu zuten: «Gero eta zailtasun gehiago izango dituzte herrian bizitzeko egiteko».



Irakurle talde feministaren berri ematen.

Irakurle talde feminista sortu zuten Lekeition

GIZARTEA/ Udalak Labaka idazlearen proposamenez abiatu zuen proiektua.

Lekeitioko Udalak irakurle talde feminista sortu zuen, Ane Labaka Mayoz idazle eta bertsolariaren gidaritzapean eta haren proposamenez. Proposamena Labakaren eskutik heldu ba-

zen ere, udalean pozik hartu zuten irakurzaletasuna eta feminismoa uztartu ahal izateko ekimena: «Pila bat poztu ginen proposamen hau heldu zitzaigunengan. Uste dugu interesgarria dela emakumeok hausnartzeko bidea izan daitekeelako, ahalduntzeko. Horrez gain, mugimendu feministatik haratzago ikuspuntu feminista zabaltzeko aukera izan daiteke irakurzaletasunaren bitartez», azaldu zuten.

Andraetxearen eta udalaren arteko zubia eraikitzeko aukera ona izan zitekeela ere nabarmendu zuten: «Pentsatzen dugu kalea, erakundeak eta herriko mugimenduen arteko zubia eraikitzeko aukera ona dela».

Irakurle talde feministaren lehenengo hitzordua ere zehaztu zuten: otsailaren 27an Uxue Alberdiren *Dendaostekoak* liburua landu zuten.

sukaldeko altzariak | atek | leihoak | etab...

info

94 683 02 29

Iñaki Deuna 29 / Ondarroa
osaerreformak@gmail.com

OSA
aroztegia

IV ML METAL LANAK
IBAN VIDAL SL

INDUSTRIA eta
ITSAS-MEKANIKA
GALDARAGINTZA

94 683 18 51 ☎ 609 95 15 83

✉ metal-lanak@ibanvidal.com

Zure etorkizuna landuz

OINARRIZKO HEZIKETA PROFESIONALA



SUKAL-DARITZA



MANTENIMENDUA

Peñascal
kooperatiba

94 616 96 52
Kareaga Industrigunea 33.eraikina
48270 Markina-Xemein



Adingabeen zentroko egoera salatu zuten

ONDARROA/ Adingabeen zentroko erabiltzaile batek langile batek eraso egin ziola salatu zuen udaltzaingoan, eta Ondarroako Udalak aldundiaren harrera plana eraberritzeko premia nabarmendu zuen, kezkatuta. «Sistemak porrot egin du. Gazte hauek ere herritarrak dira, eta ez bigarren mailakoak. Ez dira alboratu behar, eta ikusten dugu hori dela etengabe gertatzen ari dena».



100 landare, Artzainerreka berreskuratzeko

MUTRIKU/ Aranzadi Zientzia Elkartearen eta Mutrikuko Udalararen ekimenez, bertoko espezieak landatzeko auzolana egin zuten Artzainerreka inguruan. Hamar pertsonako taldea osatuta, «lan ederra» egin zuten elkarlanean. Guztien artean ia 100 landare sartu zituzten, hariztikoak zein artadikoak.



Energia komunitatea sortzeko bidean

LEKEITIO/ Lekeitioko Azkue Ikastolak eta Goiener energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatibak ikastolako teilatuan eguzki plakak instalatzeko elkarlana hasi zuten. Proiektua ikastolako familiei bideratuta zegoen arren, etorkizuneko helburua udalagaz elkarlanean energia komunitate bat sortzea zela azaldu zuten aurkezpen bileran.



Hamarkada batek merezi duen ospakizuna

LEKEITIO/ 10. urteurreneko ospakizunekin jarraituta, Lekeitioko Musikaia musika eskolak konboen kontzertua eman zuten, Ikusgarrin. Rock, jazz, txistu, kamara eta folk bandak igo ziren, besteak beste, oholtzara, Burrundada Rock Elkar-terko Nabil taldeagaz batera. Ikuskizun ederra eskaini zuten.

MARGOAK, DEKORAZIOA ETA ERAIKUNTZA-MATERIALA

ONDARRU
Kaloretan

94-613 41 99
San Ignazio, 22A-behea ONDARROA

N MASKOTEN DENDA ETA ILEAPAINDEGIA

N

ALBAITARITZA ZERBITZUA ERE BAI!

San Inazio 37, behea | Ondarroa
Tel. 94 656 94 61 | elgeta@me.com



Andrak erramutan, «osasuntsu eta ilusio betean»

ONDARROA/ Indartsu, osasuntsu eta ilusioz gainezka, 45 urtetik gorako 37 emakumek osatutako taldea eratu zen Andrak erramutan proiektu feministaren baitan. Abendura arte Ondarroa Arraun Elkartearen putzuan barne entrenamenduak egin eta gero, urta-

rrilean uretan hasi ziren prestaketak egiten, udako itsas erronka helburu hartuta. Proiektua aurrera eramateko Ondarroa Arraun Elkarteak emandako laguntza eta Mutriku Arraun Taldeak emandako babesa eskertu zituzten.



Biodibertsitatea hobetzen

BERRIATUA/ Udalaren eta lur jabeen ekime- nez, beste auzolan saio bat egin zuten herri- tarrek Berriatuko Legarmendi basoa berres- kuratzeko. Saioz saio, hamabi espezieko 6.000 ale jarri zituzten 23 hektareatan.



Interesa sortu zuen erakusketak

MENDEXA/ Leixarra Ondarea Babesteko El- karteak antolatzen duen Mendexako Gabo- netako argazki zaharren erakusketak harre- ra paregabea izan zuen. 133 lagun inguru pa- satu ziren erakusketatik, interesa erakutsiz.



Angel Kareaga Zubizarreta zendu zen urtarrilaren 25ean

MARKINA-XEMEIN/ Angel Ka- reaga Zubizarreta Markina- Xemeingo alkate ohia zendu zen urtarrilaren 25ean. Eta, udala osatzen zuten langile guztien izenean Kareagaren lana eskertu zuten, «herria- ren alde egindako lanagatik eta erakutsitako konpromiso- agatik».

Kareaga Markina-Xemein- go EAJko alkatea izan zen 1999 eta 2003 urteen artean, eta herriko alderdiko orde- zkariek ere esker onez agurtu zuten herriko alkate izanda- koa. Izan ere, herritarren ongizatea zaintzeko lan egin zuela onartu zuten alderdiki- deek: «Urte askoz markina- xemeindarron ongizatea eta interesak lehenetsi zituen ir- motasun osoz agintaldi zail, baina, paregabea. Goian bego Angel».

365 EGUN EUSKARAZ eta feminismoan bizi gara!

ondarroa.eus • udalbarriak.eus • 94-683 36 72

ETXELLA Euzkoan Topatuta

ondarru bizi-bizi

Euskal Esnekigileen Elkartea sortu zuten, sektorea indartzeko

LEA-ARTIBAI/ Bizkai, Araba eta Gipuzkoako 29 esne ekoizle eta esne eraldatzailek sortu zuten Euskal Esnekigileen Elkartea, tartean Markina-Xemeingo Larruzek eta Berriatuko Txikiñenak. Bost ekoizleek sustatutako ekimenetik jaio zen elkarte 2023an, baina, iazko otsailean, hiru abeltzaintza espezieen esneki eta esne mota guztiak ekoizten eta eraldatzen lan egiten duten euskal profesionalak elkartu zituen elkarteak lehen aldiz. Bakoitzaren «berezitasun eta izaera babestuz» sektoreko langileak biltzen dituen elkarte sortu zuten, sektorea indartzeko eta kontsumoa bultzatzeko.



Lekitto Bedarrak lagunkotasun saria jaso zuen

LEKEITIO/ Auzolana, ilusioa, lagunkotasuna. Hitz horien bueltan jaso zuen Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailak banatzen duen Adinekoentzako Lagunkotasun Jardunbide Egokien saria Lekitto Bedarrak. Taldekideek

herriari eskaini zioten saria. Auzolanean dabilen herria «aberatsagoa, osasuntsuagoa eta arduratsuagoa» dela esanda, auzolanean egindako lana aitortu zieten, eta «hasierako espiritua berreskuratzea» dela hurrengo erronka esan zuten arduradunek.



Landare Azokak erosle fidelak izan zituen

MARKINA-XEMEIN/ Landareak saltzeko plaza ona da Markina-Xemeingo Landare Azoka, eta hala erakutsi zuen otsailean. Azoka zaparrada eta aterruna artean egin bazen ere, landare haztegiakokoek ondo saldu zuten, goizeko lehen orduan batez ere. «Markina-Xemein oso plaza ona da landare azoka egiteko».



Elkartegi bat egiteko asmoa agertu zuten

ISPASTER/ 2026rako Ispasterren elkartegia eraikitzea aurreikusi zuten, eta horretarako 8,6 milioiko inbertsioa egingo du aldundiak. Helburua da Lea-Artibaiko enpresa eta industria jarduera bultzatzea: «Elkartegia estrategikoa izango da ekonomia biziberritzeko eta industria sarea indartzeko».

MARGO-LAN

C.B.

- PARKETA LIJATU ETA BARNIZATU
- PINTURA APAINGARRIA
- PINTURA INDUSTRIALA
- FATXADAK, KOMUNITATEAK...

655 70 53 26 / 610 33 53 83

margolan15@gmail.com

ONDARROA

mantxua

taberna jatetxea • Beaskokalea, 24
LEKEITIO • 94-465 33 49



Maite
González

osteopatia eta
osasun zentroa

Aransolo, 4 - behea BERRIATUA 94-613 98 34 / 661 28 14 66
www.maitegonzalez.net info@maitegonzalez.net





Lea-Artibaiko eta Ekiola Energia Sustapenak erakundeko ordezkariek Etxebarriko aurkezpenean.

Ekiola Lea-Artibai herri kooperatiba aurkeztu zuten

LEA ARTIBAI/ Eguzki energia sortzeko eta kontsumitzeko Bizkaiko lehen herri kooperatiba sortu zuten.

Ekiola Lea-Artibai proiektua aurkeztu zuten Etxebarrian, eguzki energia sortu eta autokontsumoa sustatzeko helburuagaz sortutako Bizkaiko lehenengo herri kooperatiba.

Hasteko, sei udalerrik bat egin zuten proiektuagaz –Etxebarriak, Berriatuak, Ispasterrek, Lekeitiok,

Markina-Xemeinek eta Ondarroak–, baina hori eskualdera zabaltzeko asmoagaz aurkeztu zuten.

Energiaren jabe

Izan ere, herritarren energia kooperatiba sortzeko helburuagaz abiatu zuten proiektua, eta energia kooperatiba sortzeari esker, herritarrek euren energia sortzeko asmoa agertu zuten, sorkuntzaren jabetza ere euren izango dela esanda: «Zero kilometroko energia izango da. 2024a amaitzerako guk kontsumitzen dugun energia gure inguruan sortzea da asmoa. Energia berriztagarria erabiliz, urteko balantzean euren kon-

tsumoaren 100% sortzeko aukera edukiko dute».

Hasierako proiektu horretan plaka fotovoltaikoak instalatu zituzten Etxebarrian, 1,25 megawatt-ekoak, eta 650 familia ingururen kontsumoa ahalbidetu zutenak. Hain zuzen, Europako Next Generation diru laguntza lortu zuten proiektua bultzatzeko, 764.880 eurokoa, eta, horri esker, norbanakoen ekarpenen zati bat diruz lagundu zuten. «Eskualdeko 650 familia inguruk euren etxean behar duten argindar premia guztia eurek sortzea gutxi balitz, instalazioaren prezioa kostua bezain bestekoa da».

Alleriko padura zaintzeko beharraz ohartarazi zuten

ONDARROA/ Otsailaren 2an, Hezeguneen Mundu Eguna ospatu zen, eta, horren harira, Alleri zaintzeko beharraz eta ekosistema horrek duen baliioaz ohartarazi zuten Eguzki talde ekologistak. Hala, Alleri berreskuratzearen garrantzia azpimarratu zuten: «Allerin daukagun altxorra berreskuratzea egin behar dugu, naturak irabazten badu gizakiak irabazten duelako». Klima aldaketari aurre egiteko uholdeak saihesteko baliabide eta karbono depositu garrantzitsua izateaz gain, landare, anfibio eta hegaztien biodibertsitatearen kabia dela gogoratu zuten. Erakunde Ekologistak urteak daramatza buru-belarri berreskurapen plana aurrera eramateko urratsak ematen, eta instituzioei inplikatzeko eskaera egiten zien.



*Euskarak egiten gaitu
herri euskaldun*



Mutrikuko Udala



Eusko Legebiltzarrak Trans Legea onartu zuen

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU/ Ekai Lersundiren suizidioak mugitu-ta Esti Urresolak sortu zuen *20.000 especies de abejas* filmak hiru Goya lortu zituen otsailaren 10ean. Bost egunera, Ekaiaren heriotzaren seigarren urteurrenean, Trans Legea onartu zuten Eusko Legebiltzarrean. Emozio kontrajarriak izan zituzten Ana Martinez eta Elaxar Lersundik: poza, tristura, ilusioa eta falta.




Kiroldegietako langileek greba egin zuten

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU/ Bizkaiko kiroldegietako langileek grebara jo zuten, eta grebagaz bat egin zuten Markina-Xemeingo eta Ondarroako kiroldegietako langileek. 2023tik 2028ra bitarteko hitzarmen duina aldarrikatu eta sektorearen baldintza prekarioak salatu zituzten.




Aldazabalek agur esan zion zesta-puntari

BERRIATUA/ 21 urteko ibilbidearen ostean, Aimar Aldazabalek agur esan zion pilota profesionalari, non eta bere herrian. Banakako Txapelketako finalurrekoetan jokatu zuen profesionaletako azken partida, Mendibarren frontoian: «Ondo pentsatutako erabakia izan da eta oso pozik amaitu nuen etxeko azken agurragaz».



Zaldupeko aldagelak berritzea onartu zuten

ONDARROA/ Zaldupen aldagela berriak egiteko proiektua onartu zuten udaleko osoko bilkuran; proiektua 2,8 milioi euroko aurrekontuagaz onartu zuten. Aurrera Kirol Elkarteak «pozik eta eskertuta» agertu zen, ze Zaldupeko eraikinak 50 urte baino gehiago ditu eta gabeziak ere ugariak dira.



www.inmobiliarialopez.net

INMOBILIARIA LOPEZ

Pili López Arritola

Apaltoa kalea, 22
94 624 37 77 / 689 582 582
pili@inmobiliarialopez.net
48280 LEKEITIO

ITURGINTZA | GALDARAK | GASA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Maguregi
iturgintza

DENDA BERRIA: Buenabentura Zapirain, 3 behea
TAILERRA: Aldamiz Etxebarria, 1 behea • LEKEITIO

656 70 83 92 • 94-684 00 22 • maguregi_iturgintza@yahoo.es



Ibarluzea eta Erkiaga, Winter Series-ko txapeldun

LEA-ARTIBAI/ Aritz Erkiagak eta Jon Ibarluzeak irabazi zuten Winter Series txapelketa, kantxei agur esan zien Iñaki Osa Goikoetxearen eta Unai Lekerikaren aurka. Txapela familiarentzako, herritarrentzako, beti laguntzen dioten horientzako dela

aitortu zuen aurrelariak, eta Ibarluzeak ere, egunerokotasunean berarekin dauden horiei eskeini zien bere lehen Winter Seriesko garaikurra. 2.000 pertsonaren aurrean egindakoagaz «gustura» geratu eta herritarrekin ospatu zuten garaipena.



Udal aretoa berritu zuten

AULESTI/ Erabilera anitzeko gune bilakatze-ko asmoz, aretoan berrikuntzak egin zituen Aulestiko Udalak. Ekipamendua berritu eta profesionalizatu zuen, elkarte eta herritarrei ekintzak antolatzeko erraztasunak emateko.



'Hamarreko bitxia', jendaurrera

ZIORTZA-BOLIBAR/ Geuretik Sortuak beka-gaz 22 sortzailek Euskal Herriko hamaika istorio erein, hazi eta loratu zituzten, eta Maddi Arozenak *Gollebarren erroak luze* narrazioa idatzi eta aurkeztu zuen herrian.

Osasun zerbitzuen egoera «jasanezina» salatu zuen EH Bilduk

LEA-ARTIBAI/ Lea-Artibaiko EH Bilduk eskualdeko osasun zerbitzuen egoera salatu zuen, Osakidetzaaren egoera «jasanezina» dela salatuz. Azken urteetako zerbitzuen gainbehera erdigunean jarri eta egoeraren larritasuna salatu zuten: «Herritarren osasuna dago jokoan eta ez da bidezkoa oinarrizko zerbitzua den horrek hainbeste gabezia izatea. Azken urteetako gainbehera ikaragarria izan da eta urteak pasa ahala zerbitzuak etengabe murriztuz joan dira eskualdeko herrietako osasun zentroetan».

Atzeritartasun gaien aholkularitza zerbitzua, martxan

MUTRIKU/ Atzeritartasunagaz lotutako aholkularitza juridiko zerbitzua martxan jarri zuten otsailaren 8an, Mutri-kun. «Behar bat ikusi eta horri erantzuna emateko helburuarekin jarri dugu martxan», azaldu zuen Mutriku Udaleko Ongizate Sailak. Izan ere, herrian hilean behin egiten dituzten kulturartekotasun topaketetan agertu zen kezka. Eusko Jaurlaritzako Aholku Sareak eskaintzen du atzeritartasunarekin lotutako aholkularitza zerbitzua, eta bulego berriak ireki zituen, horietako bat Mutriku.

Elkar hartzeko bitartekoak eraikitzen

Urte barri on!





220 igerilari batu zituen 32. Ondarru Sariak Zaldupen

ONDARROA/ Ondarroa Igeri Taldeak antolatuta, 32. Ondarru Saria lehiatu zuten Zaldupen, igerilari federatu eta eskolarren artean. Horietako 220 igerilari batu zituen probak, eta lehiaketa «oso ondo» joan zela adierazi zuten Ioar Urkiri entrenatzaileak.



Medikua Berriatuara itzultzea lortu zuten, ohiko eran

BERRIATUA/ Otsailetik martitzenero eta eguenero mobilizazioak egiten aritu ostean, herritarren konpromisoari esker, mediku zerbitzua Berriatuara itzultzea lortu zuten, ohiko egutegian bueltatzea, gainera. Osasun zerbitzua leheneratzea «premiazkoa» iza-

nik, udalak ere dagokion erakundeetara eramane zuten zerbitzua berrezartzeko eskaera. Hala ere, herritarrek egindako borroka eskertu zuten udal ordezkariak: «Euren konstantziak ere egin dutelako posible osasun zerbitzu duina bermatzea».



Duchenne gaixotasunari aurre egiteko erak

ONDARROA/ Bizitzeko, sufritzeko, maitatzeko eta aurrera egiteko hamaika modu daude, eta Iren, Quique eta Urielen hiru bizitzeko erak jaso zituen Arantza Ibarra zuzendari ondarrutarrak *La carrera contra Duchenne* dokumentalean, asmo bakarragaz: Duchenne gaixotasunari aurre egin eta ikusgarritasuna ematea.



ELAri ikusgarritasuna eman zion Osak

ONDARROA/ ELA gaixotasunari ikusgarritasuna emateko asmoz, Mikel Osa ondarrutarrak Malagara arteko bidea abiatu zuten bizikletaz (1.200 kilometro), Anhela elkartearrekin batera landutako proiektuaren baitan. ELA gaixotasunaren ondorioz galdutako lagunaren omenez egin zuten proiektua.

LAYROK, S.L.
IGELTSERITZA
636 150 729 • 629 561 332
Gardotza Industrialdea, P 21 Eraikina • BERRIATUA

Laura's
SAN IGNAZIO 8 BEHEA
ONDARROA (BIZKAIA)
94-609 97 04

lagunkor
aholkularitza & inmobiliaria

Artabide 12, Ondarroa / Info+ 94 683 18 02 / info@lagunkor.eus



Markina-Xemeinen Morelarre Talde Feministako kideak eta Mutrikuko protesta..

Zaintza sistema publiko eta komunitarioaren beharra aldarri

LEA-ARTIBAI/
Zaintza sistema publiko eta komunitarioaren beharra plazaratu zuten.

Kaleak aldarrigune izan ziren Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, eta zaintza sistema publiko komunitario baten «ezinbestekotasuna» aldarrikatu zuten Lea-Artibain eta Mutriku.

Zaintza lanak pribatizatzen ari direnengana zuzendu ziren feministak: «Sistema edozer bere pro-

duktu bilakatzen saiatzen den honetan gure aldarriak merkantilizaziorako arrazoi bilakatu nahi dituzte». Eta lan ez ordainduaren aitorzarik izan ezean, borrokan segituko dutela esan zuten.

Lea-Artibaiko Itaiak, berriz, emakume langileen interesak lehen lerroan ipintzeko bidean «enpresarien eta instituzio kapitalisten fartsatik kanpo antolatuko den antolakuntza sozialistaren aldeko hauta» egin zuen.

Udalen konpromisoak
Lekeitioko eta Ondarroako Udalek hainbat konpromiso hartu zituzten. Lekei-

tion, esaterako, herriko emakumeen memoria historikoa ezagutu, ezagutari eta ikusarazteko konpromisoa hartu zuten, eta Ondarroan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Planean aurreikusitako errekursoak, proiektuak eta ekintzak indartzeko, gauzatzekoa eta jarraipena ematekoa.

Argazki galeria:



Ontzi arinen proba pilotua egin zuten Mutriku

MUTRIKU/ Ontzi arinen gaikako bilketa hobetzeko helburuarekin, proba pilotu bat jarri zuten martxan Mutrikuko Udalak eta Debabarrenako Mankomunitateak. Hain zuzen ere, herriko 24 edukiontzitan gailu adimendunak ipini zituzten, herritarrek ontzi arinak sailkatzeko duten ohitura aztertzeko. Edukiontzi horietako zuloetako batean ipini zituzten gailu adimendunak, proiektuan parte hartu nahi zutenek zulo horretatik botatzeko. Hiru hondakin mota bota ahal izan zituzten horietan: tetrabrikak, plastikozko botilak eta freskagarrien latak. Proiektua urte betez jarri zuten martxan herrian, eta lortutako emaitzen arabera Debabarrenako gaitzatzeko herrietara zabaltzea aurreikustea pentsatu zuten. Proba martxan jarri zutenean, herritarren interesa handia izan zela jakinarazi zuten.



Mendexako

udala



Zelai auzoa 1
Mendexa
94-68421 06

idazkaritza.mendexa@bizkaia.org



Arrantza ekosistemarako aukera berrien bila

LEA-ARTIBAI/ Arrantza ekosistemarako aukera berriak bilatzeko asmoz, Lea-Artibai Fundazioak gidatzen duen Fishinn Interreg Atlantic Area proiektuaren lehen topaketa egin zuten Lea-Artibain. Ondarroako eta Lekeitioko portuak bisitatu zituzten, arrantza hornikuntzako katean berrikuntzak sustatzeko ideagaz. Arrantza «lehiakorragoa» sustatu nahi dute proiektuagaz.



Mendibarren frontoia txiki geratu zen

BERRIATUA/ Emakumezkoen zesta-punta etengabeko bilakaera bizitzen ari da eta Berriatuko txapelketa da horren seinalea: sei-garren aldiz antolatu zuen herriko eskolak lehia, eta beste urte batez «erantzun bikaina» izan zuen. Aurtengoan, gainera, hamabost klubek parte hartu zuten, Mendibarren txiki geratuz.



'Bixi', fibrosi kistikoa dutenei laguntzeko

ONDARROA/ Pedalkadaz pedalkada, fibrosi kistikoari ikusgarritasuna emango zion eta fibrosi kistikoa dutenei zein haien familiei laguntzeko helburua zuen elkartasun ekimena abiatu zuen Seber Uribek. Bruselatik Ondarroareinoko 1.314 kilometroko ibilbidea bizikletaz egitea pentsatu zuen, eta hori prestatzeko taldea osatu: *Bixi* plataforma.



500 haritz landare banatu zituzten

ZIORTZA-BOLIBAR/ Basogintza jardunaldiak egin zituzten Ziortza-Bolibarren, eta herriko nahiz inguruko herrietako 60 pertonen arreta bereganatu zuten. Horien artean, hamalau baso jabek 500 haritz landare eroan zituzten etxera, eta beste 100 herrian banatzeko konpromisoa hartu zuten.

KAFETEGIA
«GOZOTEGIA»
OKINDEGIA

San Inazio, 7 behea
ONDARROA
94-641 38 35

ITXAS ONTZIEN KONPONKETA ETA MANTENIMENDUA

Lander Fernandez
659 67 02 33
943 60 38 72
lander.xare@gmail.com
Antzomendi Polig. / Galdona bidea
PI pabiloia • 20830 MUTRIKU (Gipuzkoa)

Eraikuntzak
Kortabitarte, s.l.

Santa Katalina, 1A
If.: 94 684 08 52
faxa: 94 684 26 78
LEKEITIO

MOTA GUZTIETAKO ERAIKUNTZAK



Aldazabalek eta Mugartegik jantzi zuten txapela

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU/ Final bati buelta emateko abilezia izan ostean, Erika Mugartegi markina-xemeindarrak eta Maialen Aldazabal berriatuarrak Euskotren Women Winter Series txapelketa irabazi zuten, Helena Barrenetxea durangarraren

eta Arai Lejardi markina-xemeindarraren aurka. Final estua hirugarren setean erabaki zuten. Pilotariak urrats bat aurrera egin zuten Winter Serie-sean, joko maila handiagoa eta landuagoa erakutsiz, eta ikusleen babes aipagarria jasoz.



Ispasterrek 770 euro eman zizkion Gurutze Gorriari

ISPASTER/ Iaz bezala, Santa Ageda Eguneako dirua ekintza solidarioetarako bideratu zuen Ispasterrek. 1.541,22 euro bildu zituzten guztira, eta erdibana banatu zituzten Gurutze Gorriarentzat –haurrentzako materiala erosteko– eta Daria Fasiarentzat.



Dei: Gutxirekin asko transmititzeko giltza

MUTRIKU/ Aitzol Urkiza eta Iñigo Bravo mutrikuarrek osatutako Dei taldeak herrian ekoiztu eta grabatutako lehenengo diskoa kaleratu zuen: *Iluneko sua arrotz*. Abesti lasaia aurki daitezke, formatu sinplean: akustika, gitarra eta ahotsak dira. Oholtzara igotzea eta entzuleengana hurbiltzea bilatzen hasi ziren.



Barruko ideiak dantzak jarri zituen Egiak

LEKEITIO/ Bere zazpigarren lana aurkeztu zuen Unai Egia musikari lekeitiarrak. Nabil izen artistikoagaz *Margolana* EPA argitaratu zuen, Eneko Arruza margolari lekeitiarragaz elkarlanean. Musika melankolikoa ondu zuen: «Abesti batzuk biziagoak dira, baina melankoliatik idazten dut».

markina-xemein
urria

MARKINA-XEMEIN



www.markinaxemeinturismoa.eus
www.markina-xemein.eus





Herri Udalekuak antolatu zituzten elkarlanean, Lekeition

LEKEITIO/ Herri Eskolak, Azkue Ikastolak, Eskola Kirolak eta udalak Herri Udalekuak antolatu zituzten elkarlanean. Uda garaiari begira, «ume eta gaztetxoenei kulturaz, naturaz eta jarduera desberdinekin gozatzeko» aukera eskaini zieten horrela.



Borobila izan zen berdela protagonista duen eguna

MUTRIKU/ Aurten ez ere ez zuen hutsik egin mutrikuarren egun handiak, karpa bete jende batu baitzuen 27. Berdel Egunak. 1.600 kilo berdel erabilita, hamar eratarata egindako pintxoak banatu zituzten, eta horietatik 700 kilo erreta eman zituzten. Ohi bezala, eguer-

dia izan zen eguneko unerik gorena, eta jendetza bertaratu zen portura, pintxo dastaketara. Behin jaija hasita, giroak ez zuen etenik izan, eta gaueko kontzertuek ere jende asko mugitu zuten: Casus Belli eta Los Zopilotes Txirriaos igo ziren oholtzara.



Labakak irabazi zuen Peru Abarka lehiaketa

LEKEITIO/ «Esaten ez direnek, esaten direnek bezainbesteko garrantzia dutelako», Ane Labakak irabazi zuen Peru Abarka lehiaketako narrazio onenaren saria, *Murmur* lanagaz. Hamalau lan aurkeztu zituzten, eta «aho batez» aukeratu zuten bere lana. Sekulako poza hartu zuen idazleak: «Berezia da Murmur idaztea».



Amorotoko bostekoa, Udabirra Fest jaiari

AMOROTO/ Garagardoa, txerriki pintxoak, komiki erakusketak, giro ona eta pala partiduak uztartu zituzten Udabirra Fest jaiak. Unai Gaztelumendik *Hona Bostekoa* komikia aurkeztu eta *Amorotoko bostekoa* egin eta oparitu zien herritarrei. Garagardoetan, zerbeza artisaua izan zen protagonista.

IZAYFER
ASESORIA-AHOLKULARITZA

ASESORIA IZAYFER AHOLKULARITZA

FISCAL - LABORALA
Kontularitza - Erretiroak
Errenta - Aseguroak

Agirre Solarte, 11 • 48280 Lekeition
Tel. 94 684 25 85 • Fax: 94 684 31 66

H. Aretxaga

Finka administratzailea
Higiezin zerbitzuak
Alokairuak eta salerosketak

Iñigo Aretxaga
Bizkaiko finka administratzailea, zk.: 808
Arranegi 11-Lekeition
Tel./Faxa: 94-465 35 75
Sakelakoa: 656 58 03 14
iaretxaga@yahoo.es

ILEAREN IN-DAR-BERRITZA SPA KAPILARRA

Erlaxatzeko umea:
ILEA eta AZALA
zaintzen ditugun bitartean

nubea purest
%100 Beganoa azalaren arazoentzako

Josune
ILEAPAINDEGIA

☎ 603 944 649
artabide, 17 ONDARROA - 94-603 61 17
martitzenetik barikura: 9:00-13:00 / 15:00-19:00
zapatuetan: 8:00-14:00



Aurtengo ADELEko ikasle taldea.

Antzerkiaren garrari alegoria

AULESTI/

Ahaztezina izan zen ADELEk Aulestin sortutako esperientzia.

Artedrama Euskal Laborategiak esanahi berezia, intentsoa, markararik gabea du Aulestin. Astebetez, udaberriko lurrinak antzerki eskaintza eta tailerrak batzen dituen antzerki usainagaz nahasten dira, eta aurtengoa arrakastatsua, berezia, intimoa, alaia, herrikoa, intentsoa eta epela izan zen.

«Ahaztezina» izan zen urtero Aulesti antzerki sokenoz janzten duen egitasmoaren hemeretzigarren aldia». Garro bi eduki zituen, ohiko legez, topaketak. Batetik, emanaldiz osaturiko egitaraua; bestetik, antzerki tailer edo eskolak.

ADELen antolatzaile Ander Lipusek «poztasun handiz» hartu zuen publikoak emandako erantzuna, ikusle pila bat bildu baitziren. Ekoizpen apalagodun obrak aretoan egin zituzten, eta frontoira bideratu zituzten produkzioerik potoloenak. «ADELEk, kantitateari barik, kalitateari ipintzen dio fokua, baina, edozelan

ere, asko gustatzen zaigu sortzen den aldartea».

Herri antzerkizalea

ADEL bete-betea murgildu zen astebetez Aulestiko eguneroko bizimoldean, eta alderantziz.

Ekimenaren beste tentakuluak ere, antzerki tailerrenak, «arrakastatsua» izan ziren. Han-hemendik bertaratutako eta denetari-ko profildun hamasei ikasle parte hartu zuten, emakumezkoen ageriko presentziagaz: gizonetako bi baino ez ziren egon: «Hunkituta idazten digute, egunok intentsitatez bizi dituztela adieraziz».

Arte Grafikoaren sektoreak lau greba egun deitu zituen

AMOROTO/ Bizkaiko Arte Grafikoaren sektorean lau eguneko greba deialdia egin zuten ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek, eta Amorotoko Erabil enpresako langileek bat egin zuten deialdiagaz.

Izan ere, Bizkaiko Arte Grafikoaren azken hitzarmena 2011n sinatu zen, eta, 2013an, patronala Bizkaiko langileen lan baldintzak Espainiar Estatuaren sektoreko hitzarmenaren bidez erregulatzen saiatu zen, baina saiakerak porrot egin zuen. Epai batek onartu zuen Bizkaiko azken hitzarmena «ultra aktiboa» zela.

Geroztik, sindikatuak eta langileak hitzarmen berri baten bila zebiltzan, eta aurrerapausoak emateko ezintasuna ikusita, greba egitea erabaki zuten. Ze, 2023ko ekainean sortu zuten negoziazio mahai, baina patronalak «negoziatzeko borondate eza» zuela salatu zuten: «Gure helburua da patronalak egungo blokeo egoera amaitzea eta sektorearentzat hitzarmen duin bat lortzea».



70
Izan
Lekeitio



LEKEITIO
geure
nortasunetik



Castro eta Trias nagusi, Lea-Artibai Txallengean

LEA-ARTIBAI/ Emakumeek hartu zituzten errepideak IV. Lea-Artibai Txallengean, eta denetan onenak izan ziren Lidia Castro eta Mireia Trias, kadeteetan eta nagusietan, hurrenez hurren. Lekeition hasi eta Markina-Xemeinen amaitu zen hiru etapako itzulia ez zuen hutsik egin. Lekeitio, Berriatua eta Markina-Xemeingo antolatzaileak «pozik» geratu ziren probak emandakoagaz.



Organoa konpontzeko proiektua, jendaurrera

LEKEITIO/ Andra Mariaren Zeruratzea basilikan dagoen Aristides Cavalle-Coll organoa «ez dago egoerarik onenean», eta Lekeitioko basilikako organoaren lagunak elkarteko kideek organoa zaharbertzeko proiektua aurkeztu zuten, kontzertua eskainiz. Gutxi gorabehera 600.000 euro inguru behar zituzten.




Elizpe Rock: tokia bezain handia izan zen jai

ETXEBARRIA/ Askotarikoa izan zen Elizpe Rock: txiki bezain goxoa, handia bezain berezia. Hamalau taldek muskatu zuten jaiaren seigarren aldia, eta harrera bikaina izan zuen. Horien aurretik, baina, herriko musikariak izan ziren protagonistak. Azkenengo urteetan ohitura bihurtu den legez, trikitixa eskolako umeen doinuek girotu zuten elizpea.



Ezberdinen elkargune izan zen LAIkoloreak

MARKINA-XEMEIN/ Eskualdeko kultur aniztasuna erakutsi eta ezagutarazteko asmoagaz antolatu zuen, beste behin, Lea Artibai Ikastetxeak LAIkoloreak ekimena, eta «ezin arrakastatsuago» izan zen. Hamar postutan banatuta, kulturen eta produktuen elkartrukea egiten pasa zuten goiza.



**IRIGOIEN
OPTIKA**
OPTIKO-OPTOMETRISTA
AUDIOPROTESISTA
ENTZUMEN ZENTROA



Zumatza, 1
48280 LEKEITIO
638 37 63 33
T./Faxa: 94 684 31 72
irigoienoptika@telefonica.net

INOXKEA
HIRI ALTZARIAK

inoxkea@inoxkea.com

www.inoxkea.com

INOXIDABLEAK eta burdin lanak



Tel. 94 624 35 40 / Mug. 626 77 01 97
Okamika indust. 1 A pab. 1. Mod. / 48289 GIZABURUAGA



Akanpadaren 45 urteko ibilbideri gorazarre egin zioten

MARKINA-XEMEIN/ Gazteenei askatasuna eman eta nortasuna eraikitzen lagundu dien lekua da Markina-Xemeingo XAT taldeak antolatzen duen Akanpada, eta ekimen horren 45. urteurrena ospatu zuten apirilean. Sorreratik, milaka umeren aterpe izan da, milaka bizipen eraiki

dira, eta oroimenean zein bihotzean gordetako horiek ikusgai jarri zituzten Uhagon kulturguneko erakusketan. Behin horiek ikusi eta testigantzak entzunda, 215 lagun elkartu ziren bazkaltzeko, denak kamiseta gorriak soinean zituztela. «Historikotzat» jo zuten jaia antolatzaileek.

Argazki galeria:



320 mendizale elkartu ziren

MENDEXA/ 15, 42 eta 7 kilometroko ibilbideak «giro paregabean» osatu zituzten mendigoizaleek Mendexako Tontorrek mendi martxan. Zaleek ez zuten hutsik egin: 350 lagunetik gora batu ziren erronkari aurre egiteko.



100 emakumek bat egin zuten

LEKEITIO/ 100 emakume elkartu ziren Andra Martxiaren 14 kilometroei ekiteko. Lekitoko Mugimendu Feministak hirugarrenez antolatu zuen martxa, eta, giro ezin hobean, «helburuak beteta» amaitu zuten eguna.

Familientzako elikadura eskolak eskaini zituzten

AULESTI/ Familientzako elikadura eskolak bi hitzordu eroan zituen Aulestira. Lehen saioan egungo elikadura ereduak aztertu zituzten, alde negatiboak mahai-gaineratuz. Bigarren saioan, ostera, ikastetxetako jantokiak eraldatzen joateko gakoak eta ideia praktikoak jorratu zituzten hitzordura bertaratu zirenek.

lea artibai
ikastetxea

Lanbide
Heziketa
Batxilergoa
Ikastaroak

www.leartik.eus

HETEL
Ikasgiltza

Zatozi!

94 616 90 02
info@leartik.eus

Energia eredu propioa garatzen hasi ziren Mendexan

MENDEXA/ Trantsizio energetikoa helburu, eredu energetiko jasagarri baterako bidea martxan ipini zuen Mendexako Udalak. Epe luzerako plan estrategiko baten beharrezan ikusita, epe ertain eta luzera begirako ekintza plana osatzen hasi ziren. Izan ere, herrian egiten zituzten ekimen ezberdinak norabide berean joateko oinarrizko antolakuntza baten falta sumatzea izan zen abiapuntua. Gerora, plan estrategikoa egiten hasteko, aldundiko diru laguntza eskatu eta jaso zuten, plan energetiko propioa garatzea ahalbidetuz. Diagnostiko bat egin ostean ekintza planagaz hasi zen Barrizar.



Antxoa Eguna «indartsu» dagoela erakutsi zuten

ONDARROA/ Egun preziatua dute ondarrutarrek Antxoa Eguna, eta Alde Zaharra goraino bete zuten. Auzolana oinarri, pintxoak nonahi izan ziren, postu nahiz tabernetan. Guztira 500 kilo antxoatik inguru erabili zituzten, eta 4.500etik gora pintxo saldu zituz-

ten taberna zein postuetan. Antxustegi sendiako kideek jaso zuten Zilarrezko Antxoa, herri eta itsas ondarea gordetzeko egindako lanagatik. Ondarea zaintzeko eskatu zuten eurek: «Ondarroa ekoizlea izan da arrantzan, baina zaintzailea ere izan behar du».



Palestinaren eskaerari, elkartasun erantzuna

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU/ Gernika-Palestinaren deiari erantzunez, Palestinaren alde egin zuten Lea-Artibai eta Mutrikuko herritarrek, genozidioaren aurkako kartelak eskuan zituztela kalera ateraz. Palestinaren herria pairatzen ari denak izena daukela eta hala deitu behar zaiola azpimarratu zuten: «Genozidioa».



Mutriku aniztasunaren plaza bihurtu zuten

MUTRIKU/ Munduko Arrozak ekimenak bederatzi herrialde (Senegal, Bulgaria, Peru, Kolonbia, Honduras, Maroko, Bolivia, Nikaragua eta Euskal Herria) elkartu zituen Mutriku, herritarren arteko interakzioa sortzea helburu ipinita, eta Goiko plaza harremanak sortzeko gune bilakatu zuten.

40 urte baino gehiago zu zaintzen

IDAGA ESTETIKA

Sabin Arana, 7 behea
ONDARROA
94-683 08 38 •
687 80 24 82
info@estetikaidaga.com

ONLINE DENDA
estetikaidaga.com

@idagaestetika
MEDIKUNTZA ESTETIKOA
R548C.21.5731

Etxean egindako opilak

HAIZEA KAFETEGIA

Paskual Abaroa 22 behea, 48280 LEKEITIO

• ERA GUZTIETAKO ERREFORMAK • TEILATUAK • FATXADAK

ERAIKUNTZAK ETA HARRILANAK S.L.

IBARRI

687 795 736 • ibetarri@ibetarri.eus
• Eleizkale 5, 48380 AULESTI (BIZKAIA)

• BASERRIEN "BARRIZTEA" • ERAIKUNTZA BERRIA • PROIEKTUAK



«Kalitatezko osasun arreta» eskatu zuten giza katean

LEKEITIO/ «Ezinbesteko» osasun zerbitzua eskatzeko batu ziren Lekeition, udalen babesagaz.

SOS haur eta emakumeak mugimendu herritarrek deituta, Lekeitioko eta inguruko herrietako biztanle ugari bildu ziren maiatzean, Lekeition, «kalitatezko osasun arreta» giza katean eskatzeko.

Pediatra zerbitzua eskatzearekin ekin zieten aldarrikapenei Lekeitioko, Mendexako, Amorotoko, Aulestiko, Gizaburuagako

eta Eako biztanleak pediatrik barik zeudelako. Hala ere, beste zerbitzu batzuk ere eskatu zituzten: emaginaren kontsultak egunero izatea, Lekeition ginekologoak gehienez ere hilabeteko epean artatzea eta salbuespenak soilik larrialdi kasuetan egitea, Gernikako Ospitalean ginekologia kontsulta egunero egotea, Etengabeko Arreta Gunea izatea, eta ambulanzia medikalizatua herrian bertan bermatuta izatea urteko egun guztietan.

Udalak elkarlanean Urgentziazko egoeraren jakitun, hainbat udalek bat egin zuten Osasun Sailburuagaz batzartzeko asmoz:

eskaera bateratuak landu zituzten, eta batzarra eskatuko zioten. Baina, eskaera bakarrean bakarrik jaso zuten baiezkoa: emagina jubilatzean jardun osoz bere lanpostua betzearenean. Gainerakoetan, ezezkoa jaso zuten: pediatria zerbitzua bermatzeak, ginekologia zerbitzua 2014ko hitzarmenean adostutako baldintzetan itzultzeak, udako populazio igoerari erantzuteko mediku eta erizain gehiago ipintzeak, Etengabeko Arreta Guneak eta ambulanzia medikalizatua bermatuta izateak, herri txikietako osasun zerbitzuak dauden bezala mantentzeak eta urgentzietan 24 orduz medikua egoteak jaso zuten ezetza.

Osasun Zentroaren egoera «jasanezina» salatu zuten

ONDARROA/ Ondarroako osasun zentroan egoera «jasanezina» zela salatu eta Osakidetzari erantzukizuna eskatu zioten langileek zein herritarrek. Langileak kalera atera ziren euren egoera zein den bistaratu eta salatzeke, eta Zatoztek sinadura bilketa ipini zuten martxan egoerari heldu eta neurriak hartzeko bidea egiten hasteko. Ondarroako Osasun Etxean 7 mediku plaza daude, eta horietako bat, pediatrarena da, baina, maiatzean, hiru mediku bakarrik zeuden lanean; hain zuzen ere, bi urte baino gehiago dira Ondarroa pediatra zerbitzurik gabe geratu zenetik. Horrez gain, herritarrek salatu zuten bi eta hiru astera jasotzen zituztela mediku hitzorduak, eta, «egoera jasanezina» salatzeke, Osasun Zentroko langileak geldialdiak egiten hasi ziren, egunero, herritarren babesa jasoz, tartean pentsiodunena. «Osasun eta zaintza sistema publikoa eta kalitatezkoa» aldarrikatzen zuten.





Lea. altxor txikien gordelaku



**MUNITIBAR
ARBATZEGI
GERRIKITZ
UDALA**



**AULESTIKO
UDALA**



**GIZABURUAGAKO
UDALA**



**AMOROTOKO
UDALA**



**MENDEXAKO
UDALA**

Elexalde, 1 - 48289 GIZABURUAGA |
tf. 94-684 29 82 | leaibarra@bizkaia.org



35 urte bete zituen Txirimorraskik

ONDARROA/ Bestelako aisialdi eredu bat sustatu eta eskaintzeko asmoz sortu zen Ondarroako Txirimorraski ODLT taldea, eta 35 urte geroago, herriko talde erreferenteetako bat izaten jarraitzen du. Urteurrena «goi-goitik» ospatzeko erronka jarri eta bete zuten maiatzean Txirimorraskikoe, ze, jai erraldoian batu ziren herritarrak, «inoiz baino biziago» daudela erakutsiz.



Munitibar Lea Ibarreko umeen plaza izan zen

MUNITIBAR/ Lea Ibarreko Umeen Eguna ospatu zuten Munitibarren. Lea Ibarreko ume nahiz gaztetxoei zuzendutako jai eguna izan zen, eta bailarako herritarrek denetariko jardueraz gozatze-ko aukera eduki zuten: jolas puzgarriak, ludoteka, beso birakaria, ferriako jokoen zirkuitua edota aurpegia margotzeko txokoa.



Lehen sektoreari bultzada emateko plaza

MARKINA-XEMEIN/ Lehen sektoreari bultzada emateko Markina-Xemeingo Baseri Eguna bertoko ekoizle eta abeltzainak elkartu zituen, beste urte batez. 30 bildots erre zituzten, eta Ilunpe tabernak irabazi zituen V. Pintxo Bideako bi sariak. IV. Helduen Trikiti Txapelketan, berriz, Xabier Etxanizek eta Ainara Saizarrek eskuratu zuten txapela, hirugarrenez.



Marokora elkartasuna eroan zuten

BERRIATUA/ Urbegi Fundazioagaz, *Lo Imposible* sarietako irabazleen Marokoko abenturan parte hartu zuen Ander Txakartegik. 2023an lurrikarak suntsitutako herriak bizikletaz igaro, eta Tizen herriko umeen eskutik ezagutu zuen egoera. Euren etxeak berreraikitze materiala eman zien sei familiari.

Diseinu eta Komunikazioa
AULESTI S.L.
Ibegrafik



94 627 92 94 / 602 423 718
diseinua@ibegrafik.com
administrazioa@ibegrafik.com

GOIXARRI S.L.
ERREFORMA LANAK

goixarri@gmail.com

630 273 414
615 750 960

Mutriku

IBARPLAS
LEIHOAK

943-19 92 26 • ibarplas@ibarplas.com
www.ibarplas.com

Industrialdea kalea, C partz., 5. nabea • ITZIAR



Herri lagunkoia izateko bidean, pauso bat gehiago

MARKINA-XEMEIN/ Herri lagunkoiago, errazago eta bizitzeko kalitate hobekoagoak dituen eraikitzeko Herri Lagunkoia proiektuaren parte da Markina-Xemein, eta Lagunkoia taldeak bi urte inguruko ibilbidea egin zuen hazia erein zuenetik. Izan ere,

ereindako hazi hori fruitua ematen hasi zen, 2023ko urritik abendura bitartean herriko zortzi aspektu aztertu, diagnostiko bat landu eta emaitzak atera zituztelako, maiatzean horiek aurkeztuz; kezkarik handiena osasun zerbitzuei buruzkoa izan zen.



Akerbeltzekin, mundura saltoa

MUTRIKU/ Xiri Andonegi mutrikuarrak egin-dako Akerbeltz erraldoia Veneziako Nazioarteko Arte Biurtekoan egon zen ikusgai, artea eta arkitektura uztartzen dituen Belgikako Petticoat Goberment kolektiboaren erakusketan.



Dastaketa eta jolas artean

GIZABURUAGA/ Olazar Kultur Elkarteak nagusientzako dastaketa eta haurrentzako altxorraren bila jolasa proposatu zituen, eta erantzun ederra izan zuten hitzorduek. Haur zein nagusi batu ziren, «oso ondo» pasatuz.



Burrundada Egunik eta «indartsuena» ospatu zuten

LEKEITIO/ Herriko eta inguruko rock taldeak ezagutarazteko helburuagaz jaio zen Burrundada Eguna duela hiru urte, baina maiatzean ospatu zuten hirugarrenez jaialdia «inoizkorik eta indartsuena» izan zen. Burrundada Musika Elkarteko kideak pozik geratu ziren jaialdiak izan zuten erantzunarekin: «Aurten saltotxo bat eman dugu gora. Erantzunarekin oso pozik geratu gara, oso gustora. Dena antolatzen lanean aritu ostean dena ondo atera dela ikusita pozarren gaude». Hain zuzen ere, herriko taldeei ikusgarritasuna ematea bilatu zuten, eta sei kontzertutatik lau herriko taldeenak izan ziren: Nabil, Drunk Smile, Slavers eta Didar. Bermeoko Kruddö taldeak eta Doneztebeko Dama taldeak osatu zuten Burrundada Eguneko kartela. «Oso kontzertu onak izan ziren».



AKUIKULTURAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

- »» Formakuntza praktikoa
- »» Praktikak europar zehar
- »» Ate ireki pertsonalizatuak
- »» Irteera profesionalak:

-Haztegiak	-Akuariumak
-Itsaski biberokak	-Animalia dendak
-Ikerketa zentroak	-Instalaketunten muntaiak

info@kardala.eus 943 607137

ikasLAN Gipuzkoa EUSKADI
Fp Erasmus+
www





Urteroko osagaiek ez zuten hutsik egin Zapato Azulean

ONDARROA/ Jaia, Radixu Irratia, kuadrilla, dinamartxa, kolore azule, barreak, irrintziak... Osagai askok egiten dute Zapato Azule berezi, eta aurtengoan ere, ederra izan zen ekainaren 29an Ondarroan sortu zen festa. Jendez bete zen herria, eta txalo artean hartu zituzten Dinamar-

txako 200 parte hartzaileak. Horrez gain, Zapato Azulek Josune Laka Artetxe artistaren isileko lana aitortu zuen, eta, Mutrikuko Tallerra Tattok irabazi zuen Euskal Herriko Kamiseta Azokako saria. Ondarroakoa, berriz, Yaalah elkartearentzat izan zen.

Argazki galeria:



Ganadu Azoka «ikusgarria» izan zen

ETXEBARRIA/ Etxebarriko eta eskualdeko ganaduak eta produktuak erakusteko erakusleihu aparta izan zen Ganadu Azoka, hamar postu eta 200 ganadu buru ikusi eta erosteko aukera egon baitzen. Azokan beste urteetan baino jende gehiago ibili zen, eta Peio Seguiolak irabazi zuen I. Artzain Txakur Lehiaketa.



Eskola publikoaren aldeko deia egin zuten

MUTRIKU/ Goizeko Izarra Ikastolako guraso, irakasle eta ikasleek, erabakitze eskubidea aldarrikatu eta Hezkuntza Sailak Samiela ikastetxera bideratutako ikaslearen egoera salatu zuten, ikaslea familiak aukeratutako Goizeko Izarra Ikastola ikastetxe publikoan gelditzea eskatuz.

ibane
BARNE DISEINUA

ZEAR KALEA, 5 48270 MARKINA-XEMEIN · 94 616 63 26 · 676 972 034 · ibane@ibane.es · www.ibane.es

GOIZMEK, S.L.

MEKANIZATUAK

Tf. / Faxe: **94 684 1413**
goizmek@goizmek.com

okamika industrialdea, 3A • GIZABURUAGA



Lekeitioko kaleak bete zituzten Lea-Artibai eta Mutrikuko Desbiauek.

Herriak eraldatzeko eta bizigarriago egiteko deia

LEA ARTIBAI/

Aldarrikapenez beteta ospatu zuten Harrotasun Eguna Lekeition

Lekeitioko kaleak hartu zituzten Lea-Artibai eta Mutrikuko Desbiauek Harritasun Egunean, sexu eta genero-disidenteen harrotasunaren eguna plazaratzeko asmoagaz.

Enpresa eta erakundeak interpelatu zituzten: «Ez dugu onartuko kapitalismoak gure izenean zuriketarik egitea, sistema hau mantentzearen erantzule zuzenek gure diskurtsoa

beraienganatu eta euren mesedetan erabiltzea».

Hala, erroko aldaketa aldarrikatu zuten, eta borroka antikapitalistak, dekolonialak eta transfeministak aitortzearen eta aldarrikatzearen beharra azpimarratu zuten, «jakitun izanda horretarako ekiteko erak, pentsatzekoak eta bizitzekoak berrikusi eta aldatu behar ditugula».

Horrez gain, palestinar herria bizitzen ari den genozidioa salatu zuten. Trans kolektiboaren kontrako erasoaren eta gorroto diskurtsoen oldarraldiari

ere aipamena egin zioten, eta erasoak sexu-genero disidente eta transfeminista orenen aurkako erasoak direla azpimarratu zuten.

Desbiauek herrian bizi nahi dute, eta herritik aldarrikatu eta gorpuztu nahi dute disidentzia: «Gure herriak ez dira espazio seguruak, ez dago zis-heterosexualitatetik at bizitzeko alternatibarik». Ondorioz, nortasun disidenteak erdigunean jarri zituzten Harrotasun Egunean, «ez dutelako sistema heterosexualean onartuak izan nahi, sistema bera eraldatu nahi dutelako baizik».

Eskatu zuten Garraitz irla natura erreserba izendatzeko

LEKEITIO/ Lekeitioko Atabaka Kultur Elkarteko kideek jakinarazi zuten Garraitz irla natura erreserba izendatzeko eskaera egin zutela udaletxean martxoaren 8an, bertan dagoen biodibertsitate aberastasun «izugarria» dela-eta.

Eta, eskaera egiteko arrazoiak mahaigaineratu zituzten ekainean: «Uhartea gero eta jende gehiagok bisitatzen du bertako paisaia bereziak eta parke arkeologikoak sortzen duten interesagatik». Jarduera hori «osasungarria» den arren, uhartea «gaizki» erabiltzeak sortu ditzakeen ondorioetatik «babestu» nahi zuten: «Bereziki hegazti jakin batzuen kumaldia dela-eta, sentikorrek diren datetan; hala nola, belatz handia eta beste espezie batzuk».

Era berean, beste hainbat puntu erregulatzen saiatzen aritu ziren; esaterako, txakuraren sarbidea, dronen erabilera eta pertsonen irisgarritasuna gune sentikorrenetara. Udalak egoera «sakon» aztertu behar duela erantzun zuen.



Mendia eta itsasoak egiten gaitu

www.ispaster.eus



2.000 ahots, Osasun Etxeko egoera salatzen

ONDARROA/ 2.000 lagun inguru batu ziren Ondarroako herritarrek Osakidetza eta herriko Osasun Etxearen egoera salatzeke antolatu zuten mobilizazioan. «Egoera orokortuaren» kudeaketa txarra mahaigaineratu eta Osasun Sailari konponbideak eskatu zizkieten herritarrek. Zazpi mediku plaza daude Ondarroako Osasun Etxean, eta horietako bat, pediatarrena da, baina ekainean, hiru mediku zeuden lanean eta pediatriarik ez.



Helmugak «herri baten erronka» bihurtu zen

BERRIATUA/ Helmugak Erronkak beste jauzi bat eman zuen: 600 kilometroko hiru etapa eta hiru eguneko jai giroa uztartu zituen haurren gaixotasun desberdinen alde. Eta, beste behin, erabateko izan zen arrakasta. Erantzuna «zoragarria» izan zela eta bi urte barru errepikatu nahi duela esan zuen Ander Txakartegik.



Medikua eta erizaina izateko borroka

ZIORTZA BOLIBAR/ Ziortza-bolibartarrek mediku eta erizain zerbitzua berrezartzeko eskaeragaz jarraitu zuten, Markina-Xemeingo ambulatorio aurrean elkartzuz, *Ziortza-Bolibarren mediku erizain zerbitzua orain!!!* lelopean. Izan ere, bi urte baino gehiago ziren herrian medikurik ez zutela: «2020ra arte astean egun batean izaten genuen zerbitzua. Orain, ordea, ez daukagu ez mediku, ez erizainik».



Belaunaldien arteko harremanak sustatuz

ONDARROA/ Bizitzako ziklo ezberdinetan dauden pertsonen arteko harremanak sustatzea helburu izanik, belaunaldien arteko proiektua landu zuten Ondarroako Eguneko Zentroak eta Zubi Zahar Herri Ikastolak: *Zubi Gazte*. Ikasleen enpatia eta elkartasuna sustatu zituzten proiektuagaz.

GAIMAZ
AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK
INFRAESTRUCTURAS Y SERVICIOS

INGURUNEA ZAINDUZ ERAIKITZEN DUGU
www.gaimaz.com

www.fideslan.com

Fideslan

Negoio
kontsultoria eta
aholkularitza


Antiguako Ama, 11
ONDARROA • Tel.: 94-683 32 08
DONOSTIA • Tel.: 943-429 609
fideslan@fideslan.com



Esker ona, herria egiteko lanaren truke

AULESTI/ Sabin Kortabitarte eta Karmele Legarra omendu zituen Aulestiko herriak, «gaur egungo Aulesti sortzeko bizitza osoan eginiko lanagatik». 1970etik 1975era bitarteko urteak ez ziren onak izan leatarrentzat: lan aukerarik ez, garraio egokirik ez... Egoera horrek Lea-Ibarrako herrien despobula-

zioa ekarri zuen, eta testuinguru horretan sortu zen Lea-Ibarrari kolorea eta indarra ematea helburu zuen *Gaurko umeak bihar-ko gazteak*. «Ardatz desberdinak izan zituzten proiektuak: herrigintza, kulturgintza, musika... Plan horri esker dago Lea-Ibarra bizirik, eta hori guzti hori eskertu nahi izan diegu».



Iraitz Legarra saritu zuten

MARKINA-XEMEIN/ Iraitz Legarra idazle markina-xemeindarrak Azkoitiko Bizenta Mogel ipuin lehiaketa saria irabazi zuen, *Lur arrotz* lanagaz. Ilusio handiz jaso zuen saria: «Idazteak sakatu egiten nau korapiloak edukitzen ditudanean, ordenatzeko modu bat da».



Xiri Eguneko helburuak beteta

MUTRIKU/ Bigarren zuzen ospatu zuten Xiri Eguna, Rock Kolektiboaren eskutik. Xiri Andonegi Egurbide mutrikuar eskultore eta margolariak Atxukale kalean egindako obra biziberri-tzea zen helburua, eta antolatzaileak «oso pozik» agertu ziren harrerarekin.

Zeresana eragin zuen aparkaleku sistema berria ezarri zuten

LEKEITIO/ Lekeitioko Udalak aparkaleku sistema berria ipini zuen martxan ekainaren 15ean. «Herritarrak hobeto bizitzeko helburuagaz» abiatu zuten sistema berria, herritar- rarak, komertzioak, ostalariak, inguruko herritarrak eta uda- tiarrak «ardatz» izanda.

Herri guztia gune berdea bihurtu zuten, hau da, egoi- liarren gunea. Eta, era berean, gune gorriak ere martxan ipi- ni zituzten. Bestalde, «erota- zioa bermatzeko» helburua- gaz, Arropaineko eta Santa Katalinako ordainpeko siste- mak ekainaren 27an ipini zi- tuzten martxan, eta Ispaste- rrerako bideko bi aparkale- kuak ez zirela ordainpekoak izango jakinarazi zuten.

Sistema berriaren ezarpe- nak, iragarri zutenetik, zeresana eragin zuen. Izan ere, ho- rren kontra eta alde agertu zi- ren hainbat eragile. Lekeitioko EAJk salatu zuen udalak «ez zi- tuela eman beharreko pausuak eman» aparkaleku sistema be- rria «lege berme guztiarekin in- darrean ipini» ahal izateko; ze, Ispastererako bideko aparka- leketan ere ezarri gura izan zuten sistema, baina horiek al- dundiarenak dira.

Bestalde, sistemaren disei- nuan euren beharrak «aintzat hartu» zituztelako eskertuta agertu ziren Lea Ibarra eta in- guruko herri txikietako herri- tarrak eta udal ordezkariak.

LEA-ARTIBAI eta MUTRIKUN Kalitatezko Irakaskuntza Publikoa



Munitibarko eskola



Urregarai Aulestiko eskola



Amorotoko eskola



Ispasterko eskola



Manuela Zubizarreta HI Etxebarria



Zaldupe eskola



Ondarroa BHI Institutua



Berriatuko HLHI



Betoberria eskola



Markina BHI



Goizeko Izarra ikastola



Mutrikuko Institutua



Lekeitioko Herri Eskola



Iturriotz Lekeitioko Institutua



«Jendez gainezka» ospatu zuten 34. Kaleka Lekeition

LEKEITIO/ Kale arteak hartu zituen Lekeitioko kaleak 34. Kalekan. 34 urte baino gehiagoren ostean errotuta dagoen jaialdia da Kaleka, eta aurren ere, «pozik» geratu ziren antolatzaileak: «Herriko jendeak ohitura hartuta dauka, eta pozgarria da hori: emanaldi denak jendez gainezka

egon dira». Berritasunekin iritsi zen jaialdia, ikusleekin harremanak sortzeko ahaleaginean, eta berritasunak ondo hartu zituzten herritarrek. «Helburua berritasunak jaialdiak berez daukan izaerarekin uztartzea izan da. Pauso hori eman dugu, eta polito joan da», azaldu zuten.

Argazki galeria:



Iriondok zilarreko domina lortu zuen European

ONDARROA/ Serbiatik zilarrezko dominagaz bueltatu zen Ondarroara Mikel Iriondo igerilaria. Europako master txapelketako 1.500 metroko proban, ur irekian, bigarren postua lortu zuen 45-49 kategorian. Eta, 3.000 metroko bigarren proban, laugarren postua eskuratu zuen. Emaitzekin «pozik» agertu zen igerilaria.



Jende asko batu zuen Peruko Aberri Egunak

ONDARROA/ Peruko Aberri Eguna ospatu zuten Ondarroan, Tupay elkarteak antolatuta, eta egun osoko egitarauan Peruko jan-edanaz eta dantzez gozatzeko aukera izan zuten herritarrek. Elkarte «eskertuta» agertu zen, euren urtebete-ko ibilbidean «lan handia» egin zutelako eguna prestatzen.

EZENARRO
ROZTEGI

Galartza industrialdea z/g ETXEBARRIA 94 616 75 00 ezenarro@ezenarro.com

lorakesther
94-683 09 60
lorakesther.com
Artabide, 24 ONDARROA

LEA ARTIBAI FYNERRARIA
MARKINA-XEMEIN
94-616 62 12
ONDARROA
94-683 09 60
659 87 92 68

Tanatorioa,
Gardotzako
industrialdean

Gautaguzeko Zerbitzua

Euskal migrazioaren tokiko ikuspegiak landu zituzten

ISPASTER/ Migrazioaren gaia askoren ahotan zebilen Lea-Artibain, eta, Ispasterko Iñigo Egiluz kultur aretoak XIX-XX mendeetako euskal emigratio(ar)en tokian tokiko ikuspegi anitzak udako ikastaroa hartu zuen uztailaren 5ean eta 6an.

Euskal Herriko Unibertsitateak eta Ispasterko Udalak elkarlanean antolatutako hitzaldi zikloak izan ziren, euskal migrazio historikoen «konplexutasuna eta aniztasuna» sakonago ezagutarazi nahi izan zituztenak, Ispasterren eta Bizkaiko Lea-Artibai eskualdetik abiatutako tokian tokiko ikuspegi baten bitartez.

Esan zutenez, XIX eta XX. mendeetako euskal emigratioa jaso zuten nazioetan euskal identitate komun eta bateratu bat sortu zen: «Baina begirada eskala geografiko txikietara eramanez gero, aldiz, berehala nabaritzen da tokian tokiko desberdintasunak badaudela. Erritmoak, helmugak eta modalitateak oso anitzak izan zirela nabaritzen da».

Hala, ikastaroetan, euskal diasporari buruzko ikuspegi orokor bat eskaini zuten, tokiko ikuspegitik abiatuta, baina eskualde desberdinetako migrazio prozesuen «berezko xehetasunak eta berezitasunak» seinalatuta.



Andrak Erremutan proiektuko emakumeak, bandera astintzen, Ondarroako kaleetan.

Euskal kostaldean su feministak piztu zituzten

ONDARROA/

Itsasoa emakumeena ere badela aldarrikatu zuten itsas erronkan

Itsas erronka feminista burutu zuten Andrak Erramutan talde feministako 37 emakumek uztailean: Ondarroa - Donostia - Ondarroa itsasbidea egin zuten, eta Ondarroara heldu zirenean, turrin eta txalo hotsez hartu zituzten.

2023an sortu zuten Andrak Erramutan Talde

Feminista, eta urritik eta ekainera 45 urtetik gorako 37 emakumek arraunean ikasi zuten, uztailaren 6an eta 7an itsasoratzeko.

Ondarroako sasoiko emakumeentzat da Andrak Erramutan proiektua, kirola egin ala ez, arraunean ikasi eta itsasoa hartzea bilatzen duena.

Manifestua

Itsasoa gurea ere bada manifestua irakurri zuten itsasbideko geldialdietan, euskal kostaldeko errealitatea bistaratu eta eraldatzea helburu hartuta. «Izan ere, itsas mundua oso andro-

zentrikoa da, eta oraindik ere, gizezkoak nagusi dira eremu guztietan. Emakumeen lana, esperientzia eta ikuspegia baztertuta dago, zer esanik ez 45 urtetik gorakoena. Egoera honek genero desberdintasuna indartzen du».

Beraz, eraldaketa bat eskatu zuten, gizarteak emakumea eta itsasoaren inguruan daukan ikuspegia errotik iraultzeko. Helburu hauek guztiak lortzeko eta aldaketa sakonerako tresna gisa, Euskal Kostaldeko Emakumeen Manifestua aurkeztu zuten, «itsasoa eurena ere badelako».

GOITIKO
JATETXEA
KAFETEGIA

Foru Enparantza, z/g • LEKEITIO
94 684 31 03

ESKUTUR
ITURGINTZA

Rikardo Juaristi
Tfnoa: 629 144 352

Xabier Aranzadi
Tfnoa: 685 758 314

Iturribari, 9 behea
48700 ONDARROA • Bizkaia
Tfnoa: 94 683 33 37

Gizaburuagako
udala

Eleizalde 2 • 48289 Gizaburuaga



Bederatzi haur saharar etorri ziren udan

ONDARROA/ Bederatzi haur saharar joan ziren uda pasatzera Ondarroara eta inguruko herrietara 'Oporrak Bakean' programaren baitan. Ondoetorri beroa egin zieten herritarrek haur sahararrei, eta udalak zein Yaalah Elkarreak harrera familien garrantzia azpimarratu zuten: «Familiek eskaintzen duten konpromisoa oso azpimarragarria da».



Markina-Xemein, Herriartekoan garaile

MARKINA-XEMEIN/ Markina-Xemeingo esku pilota taldeak balentria galanta egin zuen uztailean: Bizkaiko Herriarteko Txapelketan bederatzigarren garaipena poltsikoratu zuen Zornotzako pilotalekuan. Maila handiko aurkaria eduki zuten aurrez aurre finalean, Zeanuri, baina hirutik bi partida irabaziz gailendu ziren.



Auzolandegian bildu ziren hilabetez

LEKEITIO/ Lekeitioko Auzolandegian bildu ziren gazte boluntarioak Uribarren-Abaroa egoitzan, eta horiei ondoetoria egin zieten udal ordezkariak. Izan ere, hilabete batez, hamar gazte baino gehiago aritu ziren Uribarren-Abaroako erabiltzaileei laguntzen. Hala, gizarte zeregin bikain batean lagundu izanaren poza jaso zuten boluntarioek.



Karmeldarren komentuko lokal bat, herriari

MARKINA-XEMEIN/ Markina-Xemeingo Udalak eta herriko karmeldarrek hurrengo lau urteetarako hitzarmena sinatu zuten komentuko lokal bat kultur eta gizarte ekintzetarako doan erabili ahal izateko. Hala, komentuko sakristiaren azpiko lokala erabili ahal izan zuten herritarrek.



TXEBARRIA
lektrizitatea
lectricidad

699 852 246
ula.etxebe@gmail.com

INSTALAZIOAK OROKORREAN /
MANTENIMENDU LANAK /
ATEZAIN AUTOMATIKOAK /

48289 Lekeitio - BIZKAIA



• Zerbitzu azkarra!
• Berrikuspenak
• Matxura elektrikoak eta elektronikoak
• Mekanika

Okamika Industriagunea, II pabilioia 1A4. • GIZABURUAGA
688 62 92 84 / 94 624 38 60 azpitarautoak@gmail.com

ESKUONAK

AUTOKONPONKETAK

Confortauto
espezialistak
pneumatiko,
mekanika,
txapa eta
pinturan.

- Mekanika orokorra
- Txapa eta pintura
- Auto garbiketa
- Zure autoa nahi duzun tokian hartzen eta uzten dugu.

Pol. Gardotza, 9 • **BERRIATUA**
Tlf: 946 833 359 - 679 631 386
Emaila: eskuonak@gmail.com






CONFORTAUTO.COM



Simon Bolibarren figura goraiatu zuten

ZIORTZA-BOLIBAR/ Duela 24 urteko uztailearen 24an jaio zen Simon Bolibar, eta bere jaiotzaren urteurrenean, urtero bezala, omenaldia egin zioten Ziortza-Bolibarren. Bertan, Andoni Lariz alkateak Bolibarren figura aldarrikatu zuen, Euskal Herria eta Latino Amerikaren arteko harremanak iru-

dikatu zituelako. Izan ere, Bolibarren senideek euren herritik alde egin zutela eta Venezuelara arteko bidea osatu zutela gogoratu zuen alkateak, baina orain kontrako bidea ematen ari direla aitatu zuen: «Eta guk, bizi proiektu berri bat sortzeko eskubidea aldarrikatu nahi dugu hemendik».



Goi mailako artistak Jazzaldian

MARKINA-XEMEIN/ Jazzaldiaren XI. edizioa ospatu zuten, eta urtez urte «indartzen eta zabaltzen» doala esan zuten antolatzaileek. Hain zuzen ere, taldeen kalitate ona eta jendearen erantzuna azpimarratu zituzten arduradunek, eta, datorren urtera begira, bide berdinean segitzeko asmoa agertu zuten.



Lehen Artzain txakur erakustaldia


AULESTI/ Eusebio Bengoetxea Aulestiarrak hainbeste urtez Artzain txakurren txapelketetan parte hartu ostean, eta herrian horrelako erakustaldirik antolatu ez izanak bultzatuta, Artzain txakurren erakustaldia prestatu zuen lehenengoz Aulestin. Jendez bete zen zelaia, balorazio «oso ona» eginez.

Berriatua OinHerri herri hezitzaileen sarera pasatu zen

BERRIATUA/ Berriatua OinHerri herri hezitzaileen sareko bazkide izatera pasatu zen uztailean. Euskal Herrian zehar herri hezitzaileen filosofia hedatzeko helburua duen eragilez eta herriz osatutako sarea da OinHerri, eta, ondorioz, Berriatuak bat egin zuen sareak proposatzen duen aisi ereduagaz, non haurrak protagonista diren eta erabakitzeke ahalmena ematen zaien eurei.

«Aisialdi hezitzailea proposatzen dugu, euskalduna, anitza, parekidea, ingurumen naturala eta kulturala zaintzen dituen, komunitate sarea eta auzolana indartzen dituen eta pertsonen arteko harreman osasuntsuak biltzen dituen», azaldu zuten.

Ibilbide luzea du OinHerri, 2012an hainbat elkartetan martxan jarri zuten egitasmoa baita; izan ere, haurren hezkuntza eta aisia beste modu batera bidera zitezkeela sinetsita abiatu zuten egitasmoa. Hori dela eta, teoria eta praktika uztartuz, herri-gintzatik, benetako parte hartzea bultzatuz eta balio hezitzaileak hedatzeko helburuarekin, hainbat urrats eman dituzte ordutik. Eta, jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berriazko tresnatzat dituen haurren kultura aitortzea da, beste pauso askoren artean, eman duten pauso horietako bat.



Gurean badaukazu

www.etxebarria.biz



Etxebarria
udala

Peñanekua Plaza, 1
94-616 64 32



Jendetza batu zen herriko Azoka Egunean

MENDEXA/ Jendetza batu zen Mendexako Azoka Egunean. Ekoizleen 12 postuk eta artisauen beste 14 postuk osatu zuten azoka, eta saltzaileak «oso pozik» geratu ziren saldutakoarekin. Mendexako Udalak ere azokaren balorazio «oso ona» egin zuen, eta daozen urteetara begira azoka mantentzea da euren asmoa.



Bixi ekimena Ondarroara ailegatu zen

ONDARROA/ 1.314 kilometro egin ostean, abuztuaren 7an heldu zen Ondarroara fibrosi kistikoari ikusgarritasuna ematea helburu zuen Bixi ekimena. Bruselatik, 13 etapatan eta peldakadaz pedalkada osatu zuten fibrosi kistikoari ikusgarritasuna emateko eta gaixotasunak jotako pertsonen zein haien familiei laguntzeko sortutako ekimen solidarioa.



Kobazuloak bisitatu zituzten lekeitiarrek

LEKEITIO/ III. Arkeologia Eguna antolatu zuten Lekeition, eta Zubiburuko kobazuloa bisitatzeko eta Atxurrara bisita birtualak egiteko aukera izan zuten parte hartzaileek. Horrez gain, tailerrak ere egin zituzten, eta, antolatzaileen berbetan, harrera «oso ona» izan zuen Arkeologia egunak.



‘Geuretik’, maitasunez egindako diskoa

ETXEBARRIA/ 2016an atera zuten lehen diskoa Mirari Azkune eta Aintzane Agirrebeñak: *Bidea Hauspotzen*. Eta, «bide luze eta gogorraren» ostean, argia ikusi zuen *Geuretik* izeneko euren lan berriak. Azkunek esan zuen *Geuretik* dela «maitasun guztiarekin» egindako lana: «Geure estiloa, musika, geure eskuetatik eta maitasunez geuk egindako lana da».

GOZOTEGIA
Errota

Antiguako Ama, 5
94 683 01 29
ONDARROA

Joseba Iñaki
Eleizgarai

Masajista
Osteopata

Konte kalea, 22
Mutriku 630 788 059

www.erabil.es

ERABIL
KARTOI KUTXAK

Zulueta auzoa z/g • AMOROTO
Tel.: 94 684 40 02
Faxa: 94 684 41 47
comercial@erabil.es

ISO 9001:2000
Nº: 123805

Euskal presoen auziari «aterabidea» ematea eskatu zuten

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU/ Abuztuko lehen asteburuan Etxeratek Saregaz batera egindako mobilizazioak «arrakastatsuak» izan ziren. Izan ere, aldarrikapenez bete zituzten Kantauri itsasoko hondartzak, tartean Lea-Artibai eta Mutrikukoak. Ehunka pertsona batu ziren horietan, Euskal preso, iheslari eta deportatuen etxeratzea eskatuz.

«Euskal gizarteak aurrera» egin behar duela adierazi zuten: «Gatazkaren ondorioen konponbide prozesuari aterabidea ematea beharrezkoa da eta elkarbizitzari ateak irekitzeko unea da». Elkarbizitza sendoa eraikitzeko, sufrimendu guztiekin amaitu behar dela esan zuten: «Preso, iheslari eta deportatuen auziari behin betiko aterabidea eman, eta herri honetan bizitako biolentzia guztien biktimen mina aitortu behar da».



Atabaka eta Aranzadiko kideak Garraitz irlako Indusketa Arkeologikoetan.

Emakume baten gorpuzkiak aurkitu zituzten Garraitzen

LEKEITIO/

Emakume gazte baten gorpuzkiak aurkitu zituzten Garraitzeko indusketetan

Hamargarrena eta azkena izan zen aurtengoa. Abuztuaren 19an hasi zituzten Garraitz irlako Indusketa lanak Atabaka Kultur Elkartekoek, Aranzadi Zientzia Elkartearen zuzendaritzapean, eta abuztuaren 22an eman zioten amaiera lau eguneko jardunari. Iazko indusketa lanetan lau gorpuzki aurkitu zituzten eta

aurten, beste bat aurkitu zuten, pasa den urtekoak ateratzen zenbiltzala. Gorpuzkien inguruan txanponak ere aurkitu zituzten.

Aurkitutako gorpuzkiei buruz «gutxi» zekiten, horretarako karbono 14aren teknika aplikatu behar zaielako. «Emakume gazte baten gorpuzkia dela dakigu soilik, 20-25 urte bitartekoa. Horrez gain, hezurren inguruan txanpon batzuk aurkitu ditugu, orain artekoak testuingurutik kanpo zeudelako, eta hauek informazio osagarri gehiago emango digute, gorpuzkien alboan zeude-

lako» adierazi zuten Atabaka Elkarteko kideek.

Leire Aranak zuzendu zituen indusketak eta gutxi gorabehera eguneko 55 boluntario hurbildu ziren auzolana oinarri duten indusketa lanetara.

2015. urtean hasi ziren indusketa arkeologikoak eta aurtien eman diote amaiera Garraitz 25 proiektuko lanei: «Alde batetik oso pozik gaude, 10 urtean oso arrakastatsuak izan baitira lanak. Baina, bestetik, tristura ere ematen digu, 10 urtean burututako lanak ez duelako jarraipenik izango».

KONPROMISOAK
ERRADIATZEN



Aniztasun funtzionala dutenen eskaerari «ahotsa» jarri zioten

LEA-ARTIBAI/ Lea-Artibai Mankomunitateko ordezkariak Bizkaiko Foru Aldundian eskatu zuten aniztasun funtzionala daukatenen arreta zerbitzua Lea-Artibaira hurbiltzeko. Era horretara, eskualdeko ikastetxe, guraso elkarte eta udalen eskariari «ahotsa» jarri zion mankomunitateak. Eusko Jaurlaritzagaz ere batzarra eskatu zuten, hain zuzen ere, Hezkuntza Sailagaz eta Osakidetzagaz, «horiek ere konponbidearen parte direlako». Lehenengo udaleku frogara Markina-Xemeinen egin zuten, balorazioa «oso positiboa» eginda: «Zerbitzua hurbiltzearen eskaerak indar handiagoa hartu du».



Ziortzako organo kontzertuak, «sendotuago»

ZIORTZA BOLIBAR/ Ziortzako Kontzertuen 36. aldia «oso ondo» joan zen: bai lehenengo asteburuan, bai bigarrenetan jendez bete zen Ziortzako Monasterioa. «Ikusle aldetik, oso pozik gaude. Gero eta jende gehiago etortzen da emanaldietara, eta pozik gaude aurtengo zelan joan den ikusita», azaldu zuten an-

tolatzaileek, eta, bereziki azpimarratu zuten organo kontzertuek izan zuten indarra. Hala ere, erronka argi dute: eskualdeko erakundeekin lotura estuagoa izatea. «Erakundeekin nolabaiteko lotura falta zaigu. Txikiak gara, eta bakoitzak ahal duena egiten du, baina hor sakondu behar dugula uste dugu».



Jende ugari gerturatu zen nekazal azokara

ISPASTER/ Udazkeneko giroa nagusi, jende ugari gerturatu zen Ispasterko nekazal azokara. Eta, 21 postutan, denetarik erosteko aukera izan zuten bertaratu zirenek. Izan ere, ekoizleei euren produktuak erakusteko toki bat ematea, eta herritarrek inguruko produktuak ezagutzea izan zen azokaren helburua.



Inoizko parte hartze onena: 250 korrikalari

LEA ARTIBAI/ Inoizko parte hartze handienagaz, 250 korrikalarigaz (207 gizonezko eta 43 emakumezko), abiatu zen VIII. Ondarru-Lekitto lasterketa Imanol Larrañagak eta Idoia Nogalesek irabazi zuten. Antolatzaileak pozik zeuden: «Pozik gaude, eta esan digutenagatik, korrikalariak ere bai».



AKARREGI HAGIN KLINIKA

ODONTOLOGIA OROKORRA • ORTODONTZIA •
PERIODONTZIA • INPLANTEAK

Juan Jose Akarregi Loyola dokt. Kolegiatu zb. 573
Mediku estomatologo

688 82 68 31 • 94-6842702 acarreguiclinicadental@gmail.com
Paskual Abaroa Etorbidea 26 bis-behea. LEKEITIO

LEARGI

LEA IBARREKO
ENERGIA BERRIZTAGARRIEN
KOOPERATIBA
leargi.bulego@gmail.com

Ezkiagak jasotako Augustin Zubikarai sariak, balio gabetuta

ONDARROA/ Ondarroako Udalak 1998 eta 2000 urteetan Patxi Ezkiaga Lasa legorretarrak jasotako Augustin Zubikarai sariak balio gabetu zituen, adingabeei egindako sexu-erasoengatik. Erabakia «ahoz batez» onartu zuten euskara batzordean eta udalbatzan. Horrez gain, sexu eraso guztien kontrako adierazpena plazaratu zuten.

«Ondarroako Udalak irmo gaitzesten ditu edozein eratako sexu-erasoak, eta bereziki arbuiatu nahi ditu adin txiki-koei egindakoak, adin txiki-koen aldetik ezinezkoa delako onarpen erreala ematea; bote-re-harreman guztiz desorekatu bat dago beste aldekoa pertsona heldu bat denean, eta, ondorioz, edozein sexu ekintza eraso da», salatu zuen udalak. Gainera, haurtzaroko esperientziek bizitzan zehar izan dezaketen eragina azpimarratu zuen.

Izan ere, Augustin Zubikarai Narrazio lehiaketa zen garaian, bi edizio desberdinetan sari bana irabazi zuen Ezkiagak, eta, beraz, Ondarroako Udalari zuzenean eragiten zion: «Udalak erantzukizuna du dagozkion erabakiak hartzeko, erreparazioarako bideak irekitzeko. Eta, emakumeari babesa adierazi asmoz, legorretarrari emandako Augustin Zubikarai literatur sariak balio gabetuko ditu».



Aulestiarrek Herri txikiak bizirik! lelopean egindako agerraldian.

BI-3448 errepidea zabaltzeari lehentasuna ematea aldarri

AULESTI/ Aulesti eta Markina-Xemein arteko bidea konpontzeko eskatu zuten

«Ezinbestekoa da errepidearen erabiltzaileen segurtasunerako BI-3448 errepidea zabaltzeari lehentasuna ematea». Eskaria argia zen, eta horrela adierazi zuten Herri txikiak bizirik dinamikako kideek Aulestin. Herritar talde horren helburu nagusia Aulesti «bizirik eta bizi» mantentzea da, eta horre-

tarako euren ganatu zuten *Herri txikiak bizirik!* leloa. Hala, Aulesti bizirik eta bizi mantentzeko Aulesti eta Markina-Xemein arteko errepidea zabaltzeko eskatu zuten Torrezelaitik, BI-3448 errepidea hasten den lekutik.

Errepide hori da, egunero hainbat langilek ez ezik, DBHko ikasleek Markina-Xemeingo hezkuntza zentrorra joateko erabiltzen dutena. Eta, herritar asko ere igarotzen dira bertatik. «Eta errepidea egoera txarrean dago, eta estua» da, eta beraz, erabiltzaile denen segurtasuna bermat-

tzeko konpontzea eskatu zuten aulestiarrek: «Markina-Xemeinera joateko daukagun era bakarra auto partikularrez joatea da. 8 kilometroko banatu eta hainbat gauzak batu arren, ez daukagu garraio publikorik bertara joateko. Eta errepidea oso estua da; ez dauka erdiko markarik, ez bazterbiderik». Gainera, kamioiekin gurutzatu behar izaten dute sarritan.

Hori esan eta sinadurak batzen ere hasi ziren, errepidea zabaltzeko eskumena daukan aldundira joan, sinadurak aurkeztu eta euren premia azaltzeko.





Eskualdeko errepideen erakusleihorik onena

MUNITIBAR/ Lea-Artibaiko errepideak gupil biren erritmoan ipini zituen, VI. Lea-Artibai Klasikoak. Munitibarren hasi eta amaitu zen festak 87 parte hartzaile hartu zituen, tartean emakumezko lau txirrindulari. Eta, eskualdekoak ez ezik, urrutitik etorritako zenbait ere irteera lerroan egon zirela azpimarratu zuten antolatzaileek, «festaren balorazio positiboa» eginda.



Samitierrentzat, ilustrazio onenaren saria

MARKINA-XEMEIN/ Raquel Samitierrek jaso zuen Peru Abarka album lehiaketako ilustrazio saria. Epaimahaiak «proposamen garatu baten koloreen indar narratzailea» azpimarratu zuten. Hala, Samietierrek Ane Labakaren *Murmur* lana ilustratu zuten: «*Murmur* ilustratzea ate berriak irekitzea bezala izan da».



Portuko lonja bisitatu zuen Pradalesek

ONDARROA/ Arrantza sektorearekin batu zen irailaren 11n Ondarroako portuan Imanol Pradales lehendakaria. Portuko lonja berria bisitatzeaz gain, kezkak adierazi eta zalantzak argitzeko tartea ere hartu zuen lehendakariak; hala, Ondarroako Arrantza Ekoizleen Erakundeko ordezkariak «geroz eta zailagoa» egiten zaiela erreleboak aurkitzea esan zioten.



Belaunaldi berrien olatuan, XI. Surf Egunean

MENDEXA/ Artzabal Surf Elkarteak antolatuta, XI. Surf Eguna ospatu zuten Karraspioko hondartzan. 70 lagun inguru animatu ziren parte hartzera, harrobian arreta jarritz: «Herri-tarrek bikain erantzun zuten». Antolatzaileek surflariak «pozarren» ibili zirela-eta, balorazio «positiboa» egin zuten.



**HONDALANAK
ETXEGINTZA
BERRIKUNTZAK**

**EGIGUREN
ERAIKUNTZAK S.L.**

Loiolako Iñaki deuna kalea, 6-behea
LEKEITIO • tel./faxa: 94-684 00 10
egigurensl@gmail.com

**DANONTZAT
LEKEITIO**

50
urte
elkarrekin

1974tik zabalik, mila esker!



100 lagunetik gora elkartu ziren Silver Film Festivalean

LEA-ARTIBAI/ Nagusien beharrak erdigunean ipini zituzten Silver Film Festivalean, Lekeition. Antolatzaileak pozik geratu ziren jardunaldien erantzunagaz: «Gure aldetik balorazioa positiboa da. 100 lagunetik gora etorri ziren, eta guretzat hori mobilizazio handia da eskualderako». Hainbat gai landu

zituzten: zahartzaroan Lea-Artibain bizitzeak dakartzan abantailak eta desabantailak, landa eremua, lehen sektoretik bizitzea, eta hamar urte barru zelan ikusten duten eskualdea, besteren artean. Zaintza eta komunitatea ere lehen lerroa eroan eta bien arteko loturak ikusi zituzten.



Eskualdeko taldeak, txapeldun

LEA-ARTIBAI/ Markina-Xemeingo eta Berriatuko zesta-punta klubek Espainiako Txapelketa irabazi zuten Bartzelonan, 54 metroko luzeradun frontoi modalitatean. Berriatuarak gizonezkoen eta markina-xemeindarrak emakumezkoen lehia nagusitu ziren.



Nahi bariako bakardadea langai

ETXEBARRIA-BERRIATUA/ Lea-Artibai Mankomunitateak nahigabeko bakardadeari buruzko saiok antolatu zituen Etxebarrian eta Berriatuan, eta saioren balorazio «oso positiboa» egin zuten. Parte hartzaileak «gustura» geratu ziren gaia lantzeko eragaz.

Lokutorio greba hasi zuten 'Pototo'-k eta Gallastegitarrek

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU/ Zaballako espetxean dauden hainbat preso, tartean Julen Atxurra *Pototo* preso lekeitiarrak eta Orkatz, Lexuri eta Irantzu Gallastegi preso mutrikuarrek lokutorio greba hasi zuten. Espainiako Estatuako espetxeetatik Euska Herriaratu zituztenetik «komunikazioaren alorrean gabezia ugari» aurkitu zituztela salatu zuten presoek: «Aurrez aurreko gutxiago eta laburragoak dauzkagu, lokutorio biko baldintza tekniko kaxkaretan gauzatu behar izan ditugu eta telefono deiei dago kienean ere, garestiegiak izateaz gain, gaizki kokatutako gailu zaharkitu eta matxuratuak erabili behar ditugu».

Aldarrikatu zuten preso dezentzat oinarrizko eskubidea dela euren gertukoekin harremana izateko aukera izatea: «Euskal preso politikoak gainera, herritarrekin lotura estua dugunez, funtsezkoa dugu». Harremana izan bakarrik ez, baldintza duinak ere eskatu zituzten: «Ezin dugu onartu bisitak gauzatzea Zaballan dauzkagun baldintzetan». Hala, arazoa konpondu bitartean lokutorio greban egon ziren hainbat euskal preso: «Lokutorio grebari ekingo diogu Zaballako espetxeari matxuratutako lokutorio guztiak behingoz konpondu ditzala eskatzeko».

2025 URTE ON
bat opa dautsuegu!



Berritxu
artibai bihotzean

Tel. 94 613 70 30 / Faxe. 94 613 70 27

www.berriatua.org





Topaketa jendetsu bezain arrakastatsua, buruhandiena

MARKINA-XEMEIN/ Erraldoien I. Topaketa jendetsu bezain arrakastatsuan elkartu ziren urriaren 5ean Markina-Xemeinen. Lekeitioko, Debako, Bergarako eta Elgoibarko taldeak gonbidatu zituzten, udalerriko kaleak kolorez eta giro ederez jantziz. Eta hainbat erraldoiren artean, bertan egon ziren *Elorrio* zestalaria, *Kontxita* erra-

ketista, *Peru Abarka* aitona eta *Bixenta Mogel* amona Markina-Xemeingo lau erraldoi nagusiak, euren taldeko txikienak bidelagun zituztela. Aurreikuspenak gainditu zituen ekitaldiak, espero baino jende gehiago batu baitzuen. Hala, elkar ezagutzeko, harremanak sendotzeko eta gauza berriak ikasteko eguna izan zen.

Argazki galeria:



Azoka Nagusia, bertoko produktuen plaza

MARKINA-XEMEIN/ 40. Urriko Azoka Nagusiak jendetza batu zuen Markina-Xemeinen. Eguraldia lagun, inguruko herrietatik bizilagun asko bertaratu ziren, bertoko produktuez gozatzerara. Izan ere, azoka «ekoizle, abeltzain eta gastronomiaren erakusle» izanik, mota guztietako 84 postu egon ziren aukeran.



Besarkadak elkarbanatuz, aniztasunez bete

ONDARROA/ Ekai Lersundi gogoan, txalo eta barre artean ospatu zuten IV. Aniztasunaren Besarkada Eguna Ondarroan. Ekitaldi «hunkigarri bezain berezian» batu ziren kalejira egin ostean, eta aniztasuna aldarrikatu zuten gaztetxoek. Eta, ohi legez, besarkada espiralean elkarri babesa eman zioten.



- Zure maskotarentzat behar duzun guztia
- Albaitari kontsulta

BELAZAHAR

94 684 06 71 • belazahar@yahoo.es
SANTA KATALINA IBILBIDEA • LEKEITIO

Zure konfiantzazko burdindegia



ordutegia: 9:00-13:30/17:00-20:00


94-683 22 07 • Artibai, 8 ONDARROA • leur2012@hotmail.es

Luis Baraiazarra Txertudi karmeldarra zendu zen urriaren 6an

MARKINA-XEMEIN/ Luis Baraiazarra Txertudi aita Luis karmeldarra zendu zen urriaren 6an, 84 urterekin. Baraiazarra 1940an Meñakan jaio zen arren, haren bizitza erdia baino gehiago zeraman Markina-Xemeinen, 1966ko udazkenetik, hain zuzen ere. «Bihotz barruan sartuta daukat herri hau», zioen Baraiazarrak.

Karmeldarra izatez gain, ohorezko euskaltzaina, filologoa, itzultzailea eta idazlea ere bazen, eta udalak eskerrak eman zizkion egindako lanagatik: «Herriko hizkuntza eta kultur ondarearen alde lan asko egin zuen, eta testigantza ugari jaso zituen. Eskerrik asko». Andres Urrutia euskaltzainburuak ere Baraiazarraren ibilbidea goraiatu zuen, baita Bera Kruzeko kideek ere.

Izan ere, bere azken «indar apurrak» ere herriaren alde lanean pasa nahi izan zituen, «herri honen alde, euskararen alde, kulturaren alde».



Euskal Zine Bilerako parte hartzaile eta antolatzaileak.

Euskal Zine Bilera, euskal ikus-entzunezkoen erakusleiho

LEKEITIO/ Jone Arriolaren 'Dena asmatuta dago' filmak irabazi zuen Urrezko Antzarra

Zine berria egin eta istorio berriak kontatu nahi dituzten sortzaile gazteengan pausatu zituen, aurten, 47. Euskal Zine Bilerak bere begiak. Begirada guztietatik, berria den zinea hauspotu zuen horrela, herritarren zein zinegileen «erantzun bikainagaz».

Sail Ofizialeko lehiara

aurkeztu zituzten hogeitan lanetatik Jone Arriolaren *Dena asmatuta dago* filmak jaso zuen Urrezko Antzarra, «organikoa, naturala eta, feskoa» den lana izatearren.

Zuzendaritza onenaren saria, aldiz, Maddi Barber lakabetarraren *Alas/Tierra* lanarentzat izan zen, «len-goia propioa» duen filma izateagatik, eta Itziar Leemansen *Ximinoa* lanak eskuratu zuen, berriz, gidoi onenaren saria.

2000. urtetik aurrerakoan artean, Benito Ansola saria Daniel Nespereira eta Zihara Etxeberriaren

Larramendi lanak jaso zuen. Kote Camachoren *Puzzleak*, *bortxaketaren jauregia* lanak epaileen saririk jaso ez zuen arren, EITB Ikuslearen saria eskuratu zuen.

Itziar Ituño Euskal zinemagintzaren figura eta ekimenak omentzen dituen Euskal Zinemaren Begirada saria Itziar Ituño aktorearentzat izan zen. Zine Bilerak «munduari euskaraz» ekin dion aktoreari egin zion aitortza, «euskal ikus-entzunezkoetan eta euskararen izan duen eragina aintzakotzat hartuz eta bere lana balioan jarri».

AZKUE
LEKEITIOKO IKASTOLA
NATURA IKASTOLA GARA

94 684 0959
lekeitio@ikastola.eus
www.lekeitioikastola.eus



LEA-ARTIBAIKO IKASTOLAK,
ETORKIZUNERANTZ HEZTEN



Zubi Zahar
Herri Ikastola

94 683 1416
ondarroa@zubizahar.eus
www.zubizahar.eus



Dzast Euskara Taldea, euskara berpizteko

LEKEITIO/ Euskararen erabileraren datuek kezka piztu zuten Lekeition, eta horri aurre egiteko Dzast Euskara Taldea sortu zuten lekeitiarrek. Erabilera sustatzeko herritarren kontzientziak piztu behar dituztela jakitun, lanean hasi ziren: «Egun, euskararen erabilera %66 ingurukoa da herrian, eta %60tik jaitsiko balitz, ezin-go litzateke ziurtatu hurrengo belaunaldiek euskaraz egitea».



Albizuk aipamena jaso zuen Elhuyar sarietan

MUNITIBAR/ Uzuri Albizu Mallea munitibartarrak aipamen berezia eskuratu zuen doktore tesiaren artikulua kategorian, *Matematika, hezkuntza eta generoa gurutzatzen diren lekuen kartografia* lanagatik, Elhuyar sariketaren 30. aldian. Albizuren jarduna diziplinartekotasunaren «adibide bikaina» dela esan zuten.



Goi-goitik ospatu zuten gazte eguna

ETXEBARRIA/ Etxebarriko Gazte Asanbladak antolatuta, herritarrek «gogotsu» ospatu zuten Etxebarriko Gazte Eguna, egun guztiko egitarauarekin: II. Herri Kirol lehiaketan bertu zituzten gorputzak lehenengo, eta 70 lagun batu ziren bazkaltzeko, gero. Jan ostean, Maider Mimiren umorezko baka-rrizketa entzun zuten, eta musikaz biribildu zuten eguna.



«Izugarrikeriaren kontrako» oihua

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU/ Palestinako genozidioa salatze-ko eta erakundeei Israelekin harremanak erabat etetzeko eskatzeko elkarretaratzetan batu ziren urriaren 21ean, Gernika Palestina Herri Ekimenak Israelen genozidioa salatze-ko egindako lehen mobilizazio handiaren urteurrenean.

AUTOS BERRITXU **AUKERAKO KOTXEAK**

Tel. 94-613 99 90
Mug. 605 12 73 22
www.autosberritxu.com
ocasionberritxu@gmail.com
Eribera auzoa, 13 behea
48710 BERRIATUA

ATEUN

HARATEGIA-URDAITEGIA

etorri eta gozatu
gure baserriko okelaz
ZERBITZU PAREGABEA

Romulo Galdos, 12 · EIBAR
943-20 61 94

Iparragirre 10 · ONDARROA
94-683 35 23 / 689 783 896

Artibai, 32 · MARKINA-XEMEIN
94-616 76 69 / 689 587 706



Landa arkitektonikoaren altxor bihurtu zuten herria

ISPASTER/ Baserririk zaharrenen, hobekien kontserbatutakoenen eta askotariko estiloa dutenen gordelekua da Ispaster. Altxorra dute herrian, eta hori partekatu nahi izan zuten urrian. Horretarako, Europako Ondare Jardunaldien baitan, herriko baserrietatik bisita gidatuak egin zituzten, arrakasta-

tsuak, irteera bakarra bi egunetara luzatu baitzuten. Hala, baserri horiek nolakoak ziren ezagutzeko aukera izan zuten parte hartzaileek, «zer jarduera egiten ziren eta nola eboluzionatu duten ezagutzeko». Garbiñe Saenz de Buruaga alkateak «positibotzat» jo zuten ekimenak jasotako babesia.



Apellarentzat, Augustin Zubikarai

ONDARROA/ Abizen berri bat lanarekin Julen Apella Santamaria idazle berriztarrak jaso zuen Ondarroako Udalak eta Elkarrek antolatzen duten Augustin Zubikarai nobela beka. Lanaren «anbizio linguistiko zein intelektuala» azpimarratu zuten epaimahaiak.



Ermitarik ermita ibili ziren

AULESTI/ Aulestiko XVII. Ermitarik Ermita Mendi Martxa arrakastatsua izan zen. 598 lagun elkartu ziren antolakuntzak prestatutako hiru ibilbideak egiteko, eta eguerdian, jan-edanean elkartu ziren guztiak herriko plazan, «giro ezin hobean».



Mutriku herri bizigarri prozesua martxan jarri zuten

MUTRIKU/ Mutrikuarrek herri bizigarri izateko prozesua abiatu zuten. Energia Transizioaren eta klima aldaketaren erronkei erantzuteko prozesuari ekin zioten, horrela.

2024ko apirilean jarri zuten martxan udalak erronka horiei erantzuteko herriaren errealitatearekin bat etorriko zen 2030 urtera begirako ekin-tza-plana. Lehenengo pausoa diagnostiko bat egitea izan zen, eta jasotako ondorioetatik partaidetza prozesua eraman zuten aurrera, irailaren bigarren hamabostalditik urriaren hasierara arte. Horrez gain, prozesu osoaren ikur izango den irudia eta leloa ere ezarri zuten: Mutriku herri bizigarri.

Horrez gain, Mutriku herri bizigarri prozesuaren baitan, «herritarrak sentsibilizatzeko asmoz» podcast desberdinak sortu zituen Mutrikuko Udalak; udal webgunean ingurumen arloaren barnean atal berezia prestatu zuten informazioa euskarri ezberdinetan jasotzeko.

www.aulesti.eus

AULESTIKO Udala

Donibane enparantza 1
AULESTI
idazkaria@alesti.eus
94 627 9006

guk euskaraz beti!

euskaraz bizirik nahi dūt



Mugikoren erabileraz kezkatuta, Altza Burua Lekitto sortu zuten

LEKEITIO/ Umeek mugikorrekin duten harremanagaz arduratuta, Altza burua Lekitto taldea sortu zuten, hiru helburu zehatzekin: mugikor propio izateko adina atzeratzea, adimendun erlojuak desageraraztea herrian bizi diren umeen artean eta gurasoen kontzientzia astintzea mugikoren erabilerari buruz.



Indarkeria matxistaren aurrean, erantzun zuzena

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU/ Indarkeria Matxistaren Nazioarteko Egunean kaleak hartu zituzten herritarrek. Izan ere, indarkeria matxista deuseztatzeko indarrak batu eta herriak aldarriz betetzeko eguna izan zen A25a. Mugimendu Feministaren aurtengo

mezua zuzena izan zen: *Ez bazarete konponbidea, arazoa zarete*. Eta aldarri horregaz bat egin zuten herriotan, denetariko ekin-tzak eta mobilizazioak prestatuz. Bestalde, matxismoari aurre egingo dion «antolakuntza politikoa» aldarrikatu zuten Itaiak.



Musika protagonista, Erroak Loran jaian

BERRIATUA/ Berriatuarren jaia da Erroak Loran, kutsu herrikoi eta kulturala duena, eta Jesus Aranbarri herriko musikariaren omenezko kontzertu «arrakastatsua» eskaini zuten aurten. Berriatuarren egunean, berriz, Lami eta Maru herriko erraldoiak kalera atera eta 350 lagun inguru elkartu ziren herri bazkarian.



Memoriaren bihotzean dagoena zabalduz

MUTRIKU/ Saturrararen Elkarteak antolatuta, Oroimen Eguneko ekitaldian 1939tik 1944 bitartean Saturrarango Emakumeen Kartzelan egondako preso emakume eta umeak oroitu eta omendu zituzten. Sufrimenduz betetako historia honen bueltan egondako elkartasuna azpimarratu zuten ekitaldian.



ASTIGARRAGA ANAIK S.L.U.

Txurruka Tteak 28 behea
20830 Mutriku
T. 943-60 40 86
WhatsApp: 661 72 37 29
astigarraga@astigarragaanaiak.com

Igeltzeritza, barne diseinua,
proiektuak 3Dn, sukaldeak,
gremioen koordinaketa.
Fatxada eta teilatuen
eraberritze lanak...

APALLU ITURGINTZA



- ITURGINTZA
- BEROKUNTZA
- GASA
- AIRE EGOKITUA
- ENERGIA
- BERRIZTAGARRIAK
- DENETARIKO ZAHARBERRITZEAK

San Agustin, 3 MUTRIKU
600 316 381 • 943 02 98 61

apallu@apallu.es / www.apallu.es



Senegalgo Thiakhar herriko udal ordezkariak Markina-Xemeingo Iratxe Lasa Arana alkateagaz.

Kulturartekotasuna erdigunean

MARKINA-XEMEIN/
Kultur aniztasuna erdigunean jarri eta aldarrikatu zuten ahaidetza jaialdian

Kultura desberdinen arteko elkarbizitza posible dela lau haizetara zabaldu zuten azaroan Markina-Xemeinen. Bertan elkartu ziren, udaleko ordezkariekin batera, Abdou Aziz Senegalgo Thiakhar herriko alkatea eta Soda Mama Fall kultura ordezkaria.

Ahaidetza jaialdiagaz bi herrien arteko ahaidetza erakutsi zuten. «Bi hamarkada baino gehiago dira udalerria Senegaldarrak

hartzen hasi zela, hango migrazio fenomenoaren ondorioz, eta egun senegaldar komunitate zabala daukagu», esan zuen Iratxe Lasa Arana alkateak.

Hala, udalak kulturartekotasunaren aldeko aldarria egin zuen: «Apustu garbia egiten dugu kultura aniztasunaren inguruan. Zubiak eraikitzea da lehen urratsa. Eta, euskal kultura zaindu eta zabaltzeagaz batera, gure kulturarekin bizikidetzan bizi nahi duten beste kulturei ere zabalik egon nahi dugu, elkarrengandik edanez eta elikatuz».

Eta, lantzeko lau lan ildo ezarri zituzten, Thiakharren beharrei begiratzuz: le-

hen sektorearen garapenerako baliabideak eskaintzea, andren ahalduntzea bultzatzeko esperientzia elkarbanatzea, Thiakharreko hezkuntza baliabide urriei erantzun bat ematea eta hizkuntza gutxituen garapenean laguntzeko euskararen normalizazioan eman diren urratsak elkarbanatzea.

Udalak hainbat baliabide eskainiko dizkion bezala, Thiakharri ere hainbat eskaera egin zizkion, ahaidetza alde biko elkarlana denaren erakusgarri: euskal kulturaren sustapena ahalbidetzea, nazio izaera defendatzea eta euskararen berri euren herrian ere zabaltzea.

Euskara sustatzeko plan estrategikoa martxan jarri zuten

GIZABURUAGA/ Gizaburuaga-ko Udalak, Uemarekin elkarlanean, herrian euskara sustatzeko plana abiarazi zuen. Hamar urtera begirako plana da martxan jarri zutena, eta, horretarako, plangintzaren estrategiak zehaztu eta ekin-tzak identifikatzen hasi ziren, hamar urte barruko Gizaburuaga irudikatuz.

Datu ofizialen arabera, %85ak daki euskaraz herrian, eta kaleko eta etxeko erabilerran jaitsiera egon zen 2017ko datuei erreparaturata. «Momentu honetan, Gizaburuaga, euskararen arnasmunea da, herrian euskaraz bizi gara eta hemendik 10 urtera ere euskaraz bizitzen jarraitu nahi dugu. Horrenbestez, euskara sustatzeko AROA plan estrategikoa jarri dugu martxan, erabilera datuek berriro gora egin dezaten».

Gizaburuagan euskara sustatzeko plan estrategikoari hasiera emateko lehen pausok eman zituzten: galdetegi bat zabaldu zuten egoeraren diagnostikoa egiteko eta herritarren ekarpenak jasotzeko, eta, ondoren, parte hartze saioa egin zuten. Saio horretan, herriaren indarguneak eta ahulguneak identifikatu zituzten, eta euskaraz bizitzen jarraitzeko ekintzak proposatu zituzten herritarrek, plana garatzen hasi ahal izateko.

Artibai
hagin klinika

MEDIKU-ODONTOLOGOIA
INPLANTEAK
PADI + IMQ



Artibai, 6
MARKINA-XEMEIN
94 616 61 60

ANTZOMENDI

Eraiketak

Angel Astigarraga 

Antzomendi baserria
Mijoa auzoa 2
antzomendi@hotmail.com

670 214514
Faxa: 943 603764



Brouarden erailketaren 40. urteurrena, gogoan

LEKEITIO/ 40 urte bete ziren azaroaren 20an GALEk Santi Brouard Perez ezker abertzaleko militantea bere pediatriko kontsultan hil zuenetik. Sortuk deituta, lore eskaintza egin zioten, eta *Borroka derriorra da* lelopean elkartu ziren ekitaldian: «Borroka bide bakarra ez da izango, baina, ezer lortzeko, borroka derrigorra da». Lekeitioko Udalak ere Brouard gogoratu zuen.



Pepetxo kobazuloko sekretuak ezagutaraziz

AMOROTO/ Amorotoko txoko ezkutuetako bat den Pepetxo kobazuloa ezagutu zuten 80 amorotoar inguruk. Amorotoko Kultur Taldearen eta udalaren ekimenez, ADES Espeleologia Elkarteko kideekin elkartu eta kobazulora joan ziren, barrura sartu eta Pepetxoren istorioa kontatu eta bertako sekretuak ezagutzeko.





Lehenengo Portuko Udal Kontseilua eratuta

MUTRIKU/ Euskal Autonomia Erkidegoko lehenengo Portuko Udal Kontseilua eratu zen Mutrikun. Udal Kontseiluak portu gehiagotan ere eratu ziren, tartean, Ondarroan eta Lekeition. Portuen arteko kide anitzeko aholkularitza, kontsulta eta eztabaida organoak dira, eta Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza sailari atxikita daude.



Herriaren borroka eta garaipena ospatuz

ZIORTZA-BOLIBAR/ Azaroaren 30a ziortza-bolibartarren historiaren data esanguratsuenetakoa da. 2004ko egun horretan lortu zuten euren ametsa: udalerrria burujabe izatea. Eta, 20. urteurrenean, lorpen hori ospatu zuten, baita bolibartarren komunitatea zaindu eta indartsuago egin izana ere.

ANAITASUNA
Alde Zaharrin • ONDARROA



ARROZTEGIA DAKAITZ
era guzietako egur lanak
ateak, tarimak, leihoak, persianak, sukaldeak eta altzari montaiak
605 715 404 - 657 799 809
Egidadu kaia, 7 • ONDARROA • 94 683 21 68



LIBURUDENDA ETA PAPERTEGIA
ARALDE BERRI
San Kristobal plaza, 22
LEKEITIO - 94-603 42 16



Tel. 94-606 18 95
Arana tar Sabin, 2
48700 ONDARROA



Lekeitioren 700. urteurreneko ekintzak abiatu zituzten

LEKEITIO/ Azaroaren 3an bete zituen 699 urte Lekeitiok, eta urteurren horrekin eman zioten hasiera ofiziala 700. urteurreneko ekimeinei. *Izan Lekeiti* 700 lelopean, eta herriak 700 urte bete bitartean, hamaika izango dira egingo dituzten ekintzak. Izan ere, egitasmoa

hausnarketarako tresna izatea nahi dute: «Ze, Lekeitiok urte gehiago ditu; badaude 12.000 urtetako kobazuloak. Hala, nondik gatozen, non gauden, eta nora joan nahiko genukeen pentsatzeko hausnarketa bultzatu nahi dugu, eztabaidarako tresna izatea nahi dugu».



Ganix Rodriguez, txapeldun

MARKINA-XEMEIN/ Euskal Herriko Hiru Txirilo Bola Joko Txapelketa Asola Berri klubeko Ganix Rodriguezek eroan zuen Markina-Xemeingo Lauzirika pilotalekua, 27 txirilogaz. Herriko MX3T taldeko Joseba Espillak irabazi zuen azken jaurtialdia, etxean.



Egun grisak kolorez jantziz

MUNITIBAR/ Herri kulturzalea da Munitibar, eta udazkenerako herritar guztiei egokitutako eta gizarte eragileen artean ehundutako kultur eskaintza sortu zuten: Udazkeneko Agenda. Emakumezkoen saretzea bultzatzeko Agenda Morea ere barne hartu zuen.

Nerabeen kontrako sexu abusuak salatu zituzten

ONDARROA/ Haur eta nerabeen kontrako sexu abusuaren prebentziorako nazioarteko eguna izan zen azaroaren 19koa, eta Ondarroako Alamedan batu ziren herritarrak, *Haur eta nerabeen kontrako sexu abusuak ez lelopean*.

Ondarroako Udalak adierazpena plazaratu zuen bertan, ikuspegi feministaren beharra nabarmenduz: «Haur eta nerabeen kontrako sexu abusuak buruz hitz egiten dugunean, nahitaezkoa da ikuspegi feministaren beharra azpimarratzea».

Mutrikuko Udalak ere «gogor» salatu zituen haur eta nerabeen kontrako sexu abusuak, eta arazo politikoa dela azpimarratu zuen: «Udalak haur eta nerabeen eskubideen defentsan lanean jarraitu behar du. Hau, gainontzeko eraso sexista, arrazista, LGTBifobo, kapazitista bezala, ez da etxe barruko arazo pribatu bat, arazo politikoa da».

Izan ere, Save The Children Erakundeak plazaratutako datuen arabera, bost umetik batek sexu abusuak jasan ditu: «Gogorra egiten zaigu honi buruz hitz egitea, baina guztiz beharrezkoa da azaleratzea». Zehaztu zutenenez, ematen diren erasoak %80-85a familia barruan ematen diren sexu abusuak dira, eta horien «%15a azaleratzen da bakarrik».

Alma Brea Caballero
PODOLOGOA
Ostekokalea, 11 behea
Markina - Xemein
Aurretiko hitzordua
652 07 82 72

 **AMOROTO**
udala
www.amoroto.eus
Elexalde auzoa, 1 • Amoroto
94-684 25 49
500 urte eta +



Bekobenta eskolako espazio berriak familientzako prest

MARKINA-XEMEIN/ Bekobenta Eskolako espazio berriak erabiltzeko prest jarri zituzten. Udalaren eta eskolaren arteko elkarlanari esker egin zituzten lanok, eta emaitzarekin «pozik» zeuden; 558.660 euroko inbertsioa egin zuen udalak. Hala, bi urteko umeentzako gela berria eraikin nagusiko beheko solairuan eraiki zuten, eraikin txikia osorik haurreskolakoek erabiltzeko.



Bertoko gastronomiaren azoka, herrikoen eskutik

AMOROTO/ Urtero legez, *Abenduan, On egin!* azoka antolatu zuen Amorotoko Kultura Elkarteak, eta neguko bertoko gastronomia dastatzeko aukera izan zuten herrian, herri-tarrek prestatutako janariagaz. Ekimenak erantzun «oso ona» izan zuen, eta hitzordu

ukaezina bihurtu da amorotarrentzat, baita eskualdeko inguruko herritarrentzat ere. Ohiko formatuari eutsi arren, aurtentzat ere izan zituen azokak. Izan ere, «ondo» funtzionatzen duela ikusirik, artisau postu gehiago jarri zituzten.



Lau herritako helduen elkarteak, saretuta

LEA-ARTIBAI/ Berriatuko, Ziortza-Bolibarko, Etxebarriko eta Markina-Xemeingo helduen elkarten arteko hartu emana oso ona da, saretuta daude, eta denetarik ekintzak egiten dituzte elkarlanean. Hala, lau herrien arteko karta txapelketa lehiatu zuten hainbat jubilatuk; briskan, musean eta tutean aritu ziren.



800 lagun, Kontzezio bertso saioan

MARKINA-XEMEIN/ Hutsik egiten ez duen bertso jaialdia da Kontzezio Egunean Markina-Xemeinen egiten dutena, eta, Amaiur elkarteak, beste behin ere, punta-puntako bertsolariak elkartu zituen aurtengoan. Herritarrek «ezin hobeto» erantzun zuten, frontoi barrua «giroa beroz» epelduz.

Zorion agurrak eramateko lekuak

Sustrai
— BELARDENDA —

Iparagirre, 6 ONDARROA
94 683 07 62

GUZURMENDI
KAFETEGIA

Arranegi, 2
• LEKEITIO •
94 624 37 25



Egunsentia
DASTATEGIA

94-684 29 25
LEKEITIO
Atea kalea 28 (ikastolaren parean)



AGINAGA
argi-indar

www.aiaginaga.com

- ▶ Eguzki panel fotovoltaikoak
- ▶ Instalazioak
- ▶ Etxetresna elektrikoak
- ▶ Telekomunikazioak
- ▶ Berriztagarriak

Artibai kalea, 30 MARKINA-XEMEIN
info@aiaginaga.com 94 616 77 20

Euskaltzaindiaren idazkari izendatu zuten Meabe

LEKEITIO/ Zuzendaritza taldea berri zuten Euskaltzaindiak, eta Andres Urrutiak akademiaren buru izaten jarraitzea adostu zuten, baina beragaz lanean ariko direnak ere zehaztu zituzten. Hala, Itxaro Borda izendatu zuten buruorde, Miren Agur Meabe lekeitiarra idazkari, Roberto Gonzalez de Viñaspre diruzain, Miriam Urkia Iker sailburu eta Paskual Rekalde Jagon sailburu. Denak ere, euskaltzain oso izendatutako kideak dira.

Borda, Meabe eta Rekalde Jean-Baptiste Coyos, Adolfo Arejita eta Sagrario Alemanen orde zuten taldera, eta lehenengoz ari dira zuzendaritza taldean lanean.

Bilboko Sociedad Bilbainaren egoitzan egindako osoko bilkuran hautatu zuten akademiaren jarduna lau urtez gidatuko duen lantaldea. Gaineratu zuten, batzorde parekidea dute akademian datozen urteetarako, baita euskararen lurralde guztiak hartuko dituenena ere.



Markina-Xemeingo Euskararen Eguneko ospakizunetan hainbat eragile bildu ziren.

Hariz hari, euskararen sarea sendatzeko aldarrikapena

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU/ Euskaratik, euskararako eta euskaraz jarduteko deia, Euskara Egunez

Euskararen Eguna ospakizun zein aldarrikapen eguna izan zen Lea-Artibai eta Mutriku, eta hori erakutsi zuten irakurritako manifestu eta egindako ekintzek. «Hariak gara, eta harilkatzen gabiltza, euskaratik eta euskarazko herri bat osatzeko». Horrela esan zuten Markina-Xemeinen, ikasle zein gurasoek.

Hala ere, han eta hemen euskarak denen beharra duela azpimarratu zuten: «Euskararen Eguna kontzientzia hartzen laguntzen digu urte osoan euskararen alde eta euskaraz jarduteko. Denok behar gaitu euskarak, hemen jaiotakoak eta bertora bizitzera etorritakoak. Euskaraz bizi nahi dugu, baina, gainontzeko ama hizkuntzak ere ahaztu barik».

Horiek horrela, denetarik ekintzak egin zituzten. Aulestin ipuin kontalaria, Berriatuan txotxongilo emanaldia eta eskulanak, eta Ziortza-Bolibarren

elkarretaratzea. Denak ere, ekimen jendetsuak izan ziren. Ondarroan, oster, euskararen aldeko danborrada egin zuten.

Lekeition, Dzast Euskara Taldeak egun guztiko egitaraua antolatu zuen, «ume pila bat» bertaratuz. Eta Etxebarrian eta Mendexan ere, ez ziren atzean geratu. Estreinakoz antolatu zuten I. Ipuin Laburren Lehiaketaren sari banaketa egin zuten Etxebarrian, eta talo tailerra zein bertso bazkarian elkartu ziren Mendexan. Mutriku, aldiz, herriko Goitibehera Tribial lehiaketan bildu ziren.

Zerbitzua hobetzen, osasuna ahotik hazten delako.



Alday
horts klinika



ZERBITZUAK: ESTETIKA FAZIALA, INPLANTEAK,
ORTODONTZIA, PERIODONTZIA, ODONTOLOGIA ESTETIKOA,
PROTESIAK, 3D SKANERRA ETA ORTOPANTOGRAFIA

943-60 39 53 • 618 09 18 52
San Agustin, 5 - behea **MUTRIKU** • klinikaalday@gmail.com

izan zaitez berba lagun!

aek
lea-artibai

- MAILA GUZTIAK
- OHIKO IKASTAROAK: aste barruan eta zapatuetan
- IKASTARO BEREZIAK: gurasoak, etorkinak, merkatariak, ostalariak...
- ON-LINE IKASTAROAK
- Udalaren diru laguntza

LEKEITIO • MARKINA-XEMEIN • ONDARROA

Obrekin hastera goaz



Zelaialde

MARKINA · XEMEIN



Irudi birtual ez lotesleak

WWW.ZELAIALDE.COM

- 2 eta 3 logelako etxebizitzak, zure terrazara irteera duen egongela zabalarekin
- Terrazak bai ala bai, orain inoiz baino gehiago hedapen bat behar duzu...etxetik irten gabe.
- Atiko ikusgarriak teilatupean, espazio zabalekin
- Beheko solairuak lorategiarekin.
- Guztiz hornitutako sukaldeak, horma-armairuak logela guztietan, bainugela nagusia guztiz hornitua
- Etxebizitzatik igogailuan sarbide zuzena duten garaje eta trastelekuak
- Logelak mendebaldean: gozatu ilunabarreko argi epelaz



GE

grupo eibar
inmobiliario

MARKINA- XEMEIN:

Okerra kalea 2

630 248 383

comercial@grupoeibar.com

www.grupoeibar.com

Xemeinberri

bizitzunea

AZKEN ETXEBIZITZAKI!
AUKERAKO GARAJEA ETA KALITATE BIKAINAK

www.xemeinberri.com

